


OIARTZUNGO UDAL LIBURUTEGIAREN GENERO IKUSPEGIAREN AZTERKETA



PAREAN
Elkartea



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN ELISKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

AURKIBIDEA

0. SARRERA.....	3
1. METODOLOGIA.....	6
2. ADIERAZLEEN EMAITZAK.....	9
AZTERTUTAKO ADIERAZLEAK.....	9
IDAZLEAK.....	13
ILUSTRATZAILEAK.....	16
PERTSONAIAK.....	19
PERTSONAIA PROTAGONISTAREN GENEROA.....	19
TALDE PROTAGONISMOA.....	26
ESTEREOTIPOAK: IKUSPEGI ANDOZENTRIKOA.....	29
PERTSONAIA PROTAGONISTEN EZAUGARRI ESTEREOTIPATUAK.....	30
BIGARREN MAILAKO PERTSONAIEN EZAUGARRIAK.....	33
ESTEREOTIPOAK OROKORREAN.....	36
NESKAK ERABAKIAK HARTZEN.....	50
NESKEN ARTEKO SOLASALDIAK.....	51
ESTEREOTIPOEN APURKETA.....	52
LAN ERREPRODUKTIBOA: ZAINZA.....	56
LAN PRODUKTIBOA.....	64
ESPAZIOA.....	70
EMAKUMEA ESPAZIO PRIBATUAN.....	71
EMAKUMEA ESPAZIO PUBLIKOAN.....	73
FAMILIA EGOERA.....	75
JATORRI ANIZTASUNA.....	78
ANIZTASUN FUNTZIONALA.....	81
ANIZTASUN SEXUALA.....	85
MAITASUN ERROMANTIKOA.....	87
KOMIKIETAN EMAKUMEEN AUSENTZIA.....	91
3. ONDORIOAK.....	93
IDAZLEAK ETA ILUSTRATZAILEAK.....	93
PROTAGONISTA.....	94
ANIZTASUNAREN PRESENTZIA.....	94
ESTEREOTIPOAK.....	95
LAN ERREPRODUKTIBO ETA PRODUKTIBOA.....	96
MAITASUN ERROMANTIKOA.....	96
EMAKUMEEN AUSENTZIA.....	96
OROKORRA.....	97
4. FEMINISMOAREN INGURUKO LIBURUAK.....	100
METODOLOGIA.....	100
FEMINISMOAREN INGURUKO LIBURUAK SAILKATZEKO IRIZPIDEAK.....	101
DATUAK.....	102
ONDORIOAK.....	103
PROPOSAMENAK.....	104
ERANSKINA.....	107
ITURRIAK.....	109

0. SARRERA

Ipuinak errealitateak fantasiara jauzi egiteko hegazkinak dira. Mundu berrietara eramaten gaituzte; baina, norbere barrura begiratzeko aukera ematen digute ere. Hitzen bidez, egunerokoan eten bat egin, eta gurekin lotzeko aukera dira ipuinak.

Bizitza osoan dira beharrezko halako bidaiatxoak, baina are garrantzitsuagoak dira haurtzaroan. Gurasoekin lotura afektiboa eraikitzeke tresna aproposak izaten dira ipuinak, iluntzean, loaren aurretik bularretik ipuinetara egiten dute salto gure haurtxoek. Giro berezia sortzen da guraso eta umearen artean ohearen goxotasunaren bueltan. Hasieran disfrutatzeke eta agurtzeke momentua dena, gai potoloak lantzeke aukera bihurtzen da ondoren. Lantzeke errazak ez diren gaiak aritzeke abagunea bihurtzen dira ipuinak. Nola sortzen gara? Heriotza, sexualitatea ... tabu izan ohi diren gaiak ederragoak dira ilustrazio eta hitzak biltzen dituen ipuinean.

Eskolan baliabide ezin aproposagoa da ipuina. Izan ere, berebiziko garrantzia dute ipuinek haurren garapenean. Bizitza beraren leioa da ipuina. Ipuinetan aurkitzen dituzte askotan oraindik ezagutu ez dituzten errealitateak. Orro egiten duten lehoiak edo lepo luze luzea duten jirafak deskubritzen dituzte ipuinen bidez. Ohetxotik altxatu gabe sabana handia ala New York zer nolakoa den ikusten dute, bai eta eskimalen berri izan ere.

Ipuina, baina, ispilua da ere. Urrutira joan beharrean, bertan geratu eta barrura begirako bidaiak egiten du irakurleak. Amorrua zer den erakusten digute ipuinek, bai eta tristura, beldurra edota bakardadea ere. Pertsonaiaren sentimenduak norberak borborka dituen bizipenen antzekoak direla ikusiko du haurrak, eta beraz, hala sentitzea arrunta dela ondorioztatuko du. Sentimenduak identifikatu eta hauekin nola jokatu ikusiko du pertsonaiaren eskutik hartuta. Ipuinen bitartez beraz, eta modu dibertigarrian, eguneroko bizitzari aurre egiteke erremintak eskuratzen ditu umeak.

Gure barrua islatzen duen bezala, inguratzen gaituen gizartearen ispilu ere dira ipuinak. Gure jendartearen balioak, jarrerak, ezagutzak aurkitzen ditugu maiz lerro artean. Eta tamalez, dezente dira ipuinetan betikotu beharko ez ziren ereduak. Ipuinek irudimena eta jakin mina pizten dituztela argi dago; zoritxarrez, ordea, hain egokiak ez diren balio eta jarrerak erreproduzitzen eta mantentzen laguntzen duten tresnak ere badira.

Ibai makinista, pilotu, suhiltzaile edota mediku lanetan aurkitu dugu. Kattalinek, baina, ez ditu lanbide guztien ateak zabalik aurkitu. Zaintzari lotutako lanen gehiengoak amek edota amonek eramaten dute sorbalda gainean eta oso gutxitan, gutxiegitan, aurkitzen ditugu familia eredu tradizionalari ihes egiten dion eredurik. Adibideak besterik ez direla esango du batek, kalterik egiten ez duten adibide puntualak beste batek... Izan daiteke bai; baina, ipuinez ipuin osatzen goazen sokak haurraren imajinario kolektiboa lotzen du.

Haur literaturan genero ikuspegia txertatzearen beharra eta garrantzia mahai gainean ipini nahi du lan honek. Haurrei zuzendutako ipuinak eta generoa harilkatuz, berdintasunean oinarri duen jendarteak estu lotuko dugunaren uste osoz.

ZERTARAKO LAN HAU?

Oiartzungo udaleko berdintasun sailaren eskaerari erantzuten dio lan honek. Udal liburutegian dauden haur eta gazteei zuzenduriko liburuen azterketa egiteko proposamenari, hain zuzen ere, erantzun diona.

Haur literaturan aurreiritzi sexistak egon badirela frogatu dugu lan honekin. Errealitate hau ezagutarazi, sentsibilizatu eta bide batez, aurreiritzi sexista hauek desagertzeko bideak ipintzea izan da lanaren xedea.

Haurrei zuzendutako ipuin eta testuliburuetan genero ikuspegiari erreparatuta dauden eredu ez egokiak identifikatzeko tresna izan nahi du ikerketa lan honek. Irakasle, guraso edota haurren zaintzan bueltan dabiltzaten pertsonen egunerokoan erabilgarriak izan ahal zaizkien zenbait adierazle agertuz.

IPUINEN BALIOA SOZIALIZAIO PROZESUAN

Sozializazioa edo gizarteratze prozesua norbanakoa bizi den gizartean sartu eta integratzeko ariketa da. Prozesu honetan pertsonak bere inguruan indarrean dauden balio eta jarrerak hartu eta bere pertsonalitatean integratzen doaz, modu naturalean inguratzen duen kultura berezkoz hartuz.

Jaiotzearekin batera abiatzen den prozesu hau jendartera egokitzeko ariketa da eta faktore askok hartzen dute parte ibilbide honetan. Gurasoek, lagunek, eskolak, telebistak, erlijoak ... Horiek guztiek bere biziko garrantzia dute pertsonaren osaketan.

Gure jendarrean baina, sozializazio prozesua sexuaren araberkoa da. Jaiotzen garen unetik ez dira berdinak neskek ala mutilak jasotzen dituzten mezuak, ez dira berdinak haiengatik espero diren jarrera eta erabakiak; eta beraz ez da berdina, euren inguruetatik espero dena. Honi guztiari genero sozializazioa deitzen zaio.

Genero sozializazioa gure egunerakoan oso presente dago, umeen jantzietatik hasi eta aukeratzen zaizkien jolasetaraino. Logelaren koloretik hasi eta kontatzen zaizkien ipuinetaraino.

Eta hortxe dago gakoa. Hasteko, ez zaizkie ipuin berdinak kontatzen neskei eta mutilei eta beraz, sormenaren erdia debekatzen zaio batari zein besteari. Eta aukeratzen diren ipuin horietan ere, ez diegu aukera berdintasuna eskaintzen irakurleari. Amaren sabelean egokitutako sexuaren araberkoko mezuak, jarrerak eta egitasmoak eskaintzen dizkiegu lerro eta irudi artean, batzuei eta besteei.

Etorkizuneko belaunaldiek euren bidea libreki eta modu askean aukeratzea eta ibiltzea nahi badugu behintzat, ezin diegu batzuei eta besteei, munduaren erdia debekatu. Ateak zabaldu eta ume eta gazteei zuzendutako ipuin eta liburuetan, eredu posible guztien dibertsitatea jaso eta sozialki bidezkoak direla erakutsi behar da. Soilik horrela lortuko dugu jendarte askeago bat.

HEZKIDETZAREN GARRANTZIA ETA SEXISMOA HAUR LITERATURAN

Sexu banaketaren amildegia bizitzako esparru orotan aurki daiteke; modu agerian batzuetan eta ikusgarri egiten ez zaigun modu sotilagoan besteetan. Sexismoa deritzo horri eta gizon eta emakumeen arteko

ezberdintasunak eta mendekotasunak betikotzeko tresna da. Sexismoaren erruz, emakumeek ez dute gizonen aukera berdintasuna.

Androzentrismoa gizona gizartearen eta kulturen zentro edo erreferentziazat hartzen duen ikuskera da. Hezkidetzan heztea ordea, erreferentzia eraldatu eta emakumeen ikuskerari ere leku egitea da. Neskentzat edo mutilentzat egokiak diren edo ez diren eredu binariotik, emakume zein gizonen kulturetatik eratorritako balio positiboak ikusarazi eta bi sexuei begira sustatzeaz ari gara hezkidetzaz.

Berdintasunean hezteko ezinbestekoa da neskak zein mutilak, gizon zein emakumeak pareko herritar gisa irudikatzea. Eta lan horretan berebiziko pisua dute ipuin eta liburuek.

Tamalez, sexismoa ere haur eta gazte literaturan txertatua dago. Bizitzan bezala, modu agerian batzuetan eta ikusgarri egiten ez zaigun modu sotilagoan besteetan. Pertsonaiak aukeratzeko orduan, hauen ezaugarriak ezartzerako orduan, testuinguruak eta ilustrazioak erabakitzeko orduan, pertsonaien arteko elkarriketetan... esparru anitzetan aurki daiteke eta horregatik berebiziko garrantzia du sexismoa detektatzeko gaitasuna edukitzea.

Detekzio lan honetan lagungarri izan nahi du lan honek eta ipuinek genero ikuspegia modu egokian lantzen dutela frogatzeko zenbait adierazle eskaini nahi dizkizuegu.

1. METODOLOGIA

Bi atal ezbedin ditu lan honek. Alde batetik Oartzungo Manuel Lekuona liburutegian haur eta gazte literatura sailean aurkitu daitezkeen liburuen azterketa kuantitatiboa egitea, ezarritako aldagaien baitan egina, eta bestetik liburu feminista bezala katalogatuak dauden liburuentzako sailkapen proposamena garatzea.

Bi atalak elkarrizketa erdi-egituratuekin osatu dira; elkarrizketa erdi-egituratua honela definitzen da: hitz egiteko bilera eta informazio truketzea pertsona baten (elkarrizketatzailearen) eta beste baten (elkarrizketatua) edo beste batzuen (elkarrizketatuak) artean. (Hernández Sampieri et al., 2015, 418. or.). Gidoi batetik abiatzen da (gaien eta galderen zerrenda sailkatua), eta bertan azterlanaren gaiarekin zerikusia duten gaiak adierazten dira (Yuni eta Urbano, 2016, 83. or.).

Elkarrizketa mota horiek gai edo galderen gida batean oinarritzen dira, eta elkarrizketagileak galdera gehigarriak sartzeko askatasuna du, beste galderak sortzeko aukera emanez azterlanaren gai sakokentzeko. Azterlan guztiari erantzunez, baina batez ere, haur eta gazte literaturaren atalari dagokionean bereziki liburutegiko langileei egindako elkarrizketen bitartez lortu nahi genuen informazioa eta liburu feministak sailkatzeko proposamenari dagokionean Oartzungo Asanblada feministako kideari egindako elkarrizketaren bitartez.

Biak hala biak baina, bi atalei erantzuten dioten erantzunak eman dizkigute, Oartzungo Asanblada feministako kideak bere ikasketa eta jardunari erantzuten haur eta gazte literaturaren inguruko gogoetak ere eskeini dituelarik.

Haur eta gazte literaturaren genero ikerketa

Haur eta gazte literaturaren ikerketari dagokionean, lana Parean elkarteak sortutako adierazleen baitan garatu da. Liburutegiko langileak emandako haur eta gazte literaturaren zerrendak izan ditugu oinarri eta, erabili dugun sailkapena, liburutegian duten sailkapenari erantzuten dio. Komikien kasuan, naiz eta liburutegian fisikoki banatuak egon dagokien urteetan txertatu ditugu.

Liburutegiko langileak bidalitako liburuen zerrendak oinarri izanda, auzaz eta aplikazio baten bitartez lagina ezarri da. Adibidez hau da 0-4 urteen zozketaren emaitza:



Aztertutako sailkapenak ondorengoak izan dira:

> 0-4 urte

> 5-7 urte

> 8-12 urte


> 12 urtetik gora

> Gaiak

5620 liburuetatik, 578 liburu aztertu dira, hau da Oiartzungo liburutegian haur eta gazteei zuzenduta dauden liburuen %10,28-a. Liburuak banan-banan hartu eta adierazleekin taulak osatu dira.

Txostenaren amaieran aztertutako liburuen datu base osatuak daude atxikiturik, liburutegiko langileentzako lanabes gisa erabilgarri eskaintzeko asmoz.

GUZTIRA AZTERTUTAKO LIBURU KOPURUA	
EUSKARAZ	316
GAZTELERAZ	259
BESTELAKOAK	3
GUZTIRA	578



■ EUSKARAZ
■ GAZTELERAZ
■ BESTE-LAKOAK

0-4 URTE SAILKAPENEAN AZTERTUTAKO LIBURU KOPURUA	
EUSKARAZ	58
GAZTELERAZ	13
GUZTIRA	71

5-7 URTE SAILKAPENEAN AZTERTUTAKO LIBURU KOPURUA	
EUSKARAZ	96
GAZTELERAZ	24
BESTELAKOAK	3
GUZTIRA	123

8-12 URTE SAILKAPENEAN AZTERTUTAKO LIBURU KOPURUA	
EUSKARAZ	72
GAZTELERAZ	56
GUZTIRA	128

12-16 URTE SAILKAPENEAN AZTERTUTAKO LIBURU KOPURUA	
EUSKARAZ	32
GAZTELERAZ	61
GUZTIRA	93

GAIK SAILKAPENEAN AZTERTUTAKO LIBURU KOPURUA	
EUSKARAZ	58
GAZTELERAZ	105
GUZTIRA	163

Liburu femistak katalogatzeko proposamena

Liburutegian dauden liburu feministak 305 zenbakiarekin sailkatuak dituzte, sailkapen horretan dauden liburuak eta Oartzungo Asanblada feministako kide bateri elkarrizketa egin eta gero dauden liburuak antolatzeko proposamena helarazten dugu.

2. ADIERAZLEEN EMAITZAK

AZTERTUTAKO ADIERAZLEAK

ADIERAZLEAK	SAILKAPENA	AZALPENA
IZENBURUA	Liburuaren izenburua	
ADIN EDOTA SAILKAPEN MULTZOA	0-4 URTE	Liburutegian dagoen sailkapenari erantzuten dion aldagaia.
	5-7 URTE	
	8-12 URTE	
	> 12 URTE	
	GAIK	
HIZKUNTZA	EUSKARA	
	GAZTELERA	
	BESTELAKOAK	
IDAZLEA	EMAKUMEA	
	GIZONA	
	BIAK	
	ANITZA	Enpresa, elkarte, fundazioa edota instituzio publiko bat izan denean publikoazioaren egilea.
ILUSTRATZAILEA	EMAKUMEA	
	GIZONA	
	BIAK	
	EZ DAGO	
	ANITZA	Enpresa, elkarte, fundazioa edota instituzio publiko bat izan denean publikoazioaren egilea.
PERTSONAIA PROTAGONISTAREN GENEROA	EMAKUMEA-NESKA	
	GIZON-MUTILA	
	OREKATUA	Bikote parekidea edo neskak eta mutilek protagonismo maila berdina daukatenean.

	DEFINITU GABEKO ANIMALIA	Euskaraz batez ere, animaliak generoa egokitua ez duenean.
	GAIA	Liburuak ez duenean pertsonaiarik, baizik eta gai zehatz bat lantzen duenean, ogia adibidez.
TALDE PROTAGONISMOEN GENEROAK	PAREKIDEA	
	NESKAK ETA MUTIL BAT	
	MUTILAK ETA NESKA BAT	
	BAKARRIK NESKAK	
	BAKARRIK MUTILAK	
PERTSONAIA PROTAGONISTAREN EZAUGARRIAK	BAI	
	EZ	Estereotipoei erantzuten dioten ezaugarriak dituen protagonistak agertzen diren ala ez. Janzkeran modu maskulino-femenino dikotomia argian ageri denean edo jarreran eta jolas moduak horri erantzuten ote dion azaltzen duen aldagaia. Neuroak direnean ezaugarri horiek EZ jarri dugu.
BIGARREN MAILAKO PERTSONAIEN EZAUGARRIAK	BAI	
	EZ	Estereotipoei erantzuten dioten ezaugarriak dituen protagonistak agertzen diren ala ez. Janzkeran modu maskulino-femenino dikotomia argian ageri denean edo jarreran eta jolas moduak horri erantzuten ote dion azaltzen duen aldagaia. Neuroak direnean ezaugarri horiek EZ jarri dugu.
NESKEN ARTEKO SOLASALDIAK	BAI	
	EZ	
	EZ ADIERAZGARRIA	12 urtetik aurrerako irakurleei zuzendutako liburutean aztertu dugun adierazlea da hau; neska edo eta emakumeen arteko solasaldiak ematen diren edo ez adieraziz.
NESKAK ERABAKIAK HARTZEN	BAI	
	EZ	
	EZ ADIERAZGARRIA	12 urtetik aurrerako irakurleei zuzendutako liburutean aztertu dugun adierazlea da hau; neska edo eta emakumeek erabakiak hartzen dituzten edo ez adierazteko
ESTEREOTIPOEN APURKETA	BAI	Liburuak estereotipoekin apurtzen

	EZ	duen edo ez azaltzen duen aldagaia.
	EZ ADIERAZGARRIA	
LAN ERREPRODUKTIBOA /ZAINZA	EMAKUMEA BAI	Emakumea edo gizona zaintzan edo lan erreproduktiboan agertzen den aldagaia da hau, etxe barruko lanak kontutan hartzen direlarik.
	EMAKUMEA EZ	
	GIZONA BAI	
	GIZONA EZ	
	EZ ADIERAZGARRIA	
LAN PRODUKTIBOA	EMAKUMEA BAI	
	EMAKUMEA EZ	
	GIZONA BAI	
	GIZONA EZ	
	EZ ADIERAZGARRIA	
EMAKUMEAK ESPAZIOAK	ESPAZIO PRIBATUAN BAI	Emakumeak hitzez ala irudiz espazio pribatuan edo publikoan agertzen diren ala ez.
	ESPAZIO PRIBATUAN EZ	
	ESPAZIO PUBLIKOAN BAI	
	ESPAZIO PUBLIKOAN EZ	
FAMILIA EGOERA	TRADIZIONALA	Familia tradizionala edo nuklearra agertzen denean. Ama, aita eta seme-alabak.
	ANITZA	Familia eredu anitza agertzen denean, nuklearra ez denean, edo nuklearra banatu eta horrela agertzen denean.
	EZ DA AGERI	
	AMA BAKARRIK	Ipuinean ama soilik agertzen denean. Familia egoera aipatu gabe.
	AITA BAKARRIK	Ipuinena aita soilik agertzen denean. Familia egoera aipatu gabe.
	EZ ADIERAZGARRIA	
JATORRI ANIZTASUNA	BAI	Pertsona arrazalitzatuak liburuan agertzen diren ala ez, ilustrazio zein idatzizko deskribapenetan.
	EZ	
	EZ ADIERAZGARRIA	
ANIZTASUN FUNTZIONALA	BAI	Aniztasun funtzionala duten pertsonak liburuan agertzen diren ala ez, ilustrazio zein idatzizko deskripzioetan.
	EZ	
	EZ ADIERAZGARRIA	
ANIZTASUN SEXUALA	BAI	12 urtetik gorakoentzat zuzenduta dauden liburuetan, harremanetan
	EZ	


	EZ ADIERAZGARRIA	edo deskribapenetan aniztasun sexuala ematen den adierazten duena, heterosuaxilatea edo/eta gorputz normatibo adierazpen hegemonikoatik haratago agertzen denean.
MAITASUN ERROMANTIKOA	BAI	Maitasun erronantiko eredu tradizionala agertzen den ala ez aztertzeko erabilitako aldagaia.
	EZ	
	EZ ADIERAZGARRIA	
BESTELAKOAK	LIBURUAREN EDIZIO URTEA	
	ARGITALETXEA	
	KOLEKZIOA	

IDAZLEAK

Narrazioen atzean ezkututzen den egilea da idazlea. Gure garaian garbi dago euskal emakume idazleek garrantzia nabarmen irabazi dutela eta haien presentzia asko handitu dela liburutegi eta liburu dendetan. Alabaina, aspaldi gizon idazleak ziren jaun eta jabe euskal literaturan eta beraz, arrakala horren aztarnak agerian jarraitzen ote duten arakatu nahi izan dugu.

Oiartzungo liburutegian haur eta nerabeen esku jartzen ditugun liburuen egileengan ipini dugu arreta eta aztertutako 578 ipuinetatik %57a gizon idazleek idatziak dira. Liburu orotatik 29tan enpresa, elkarte, fundazioa edota instituzio publiko bat dago liburuaren atzean eta beste hamaikatan bi idazle dira, bata emakumea eta bestea gizona. Hau guztia aintzat hartuta, Oiartzungo Manuel Lekuona liburutegian dauden liburuen %36a, emakumeek idatzi dituzte.

	EMAKUMEA	GIZONA	BIAK	ANITZA
EUSKARAZ	102	198	1	15
GAZTELERAZ	105	130	10	14
BESTELAKOAK	2	1	0	0
GUZTIRA	209	329	11	29




Hala ere, aldea nabarmena da adin tarte ezberdinei zuzendutako ipuinak aztertuz gero. Hala 0-4 adin tartean emakumeak dira nagusi, izan ere, ikertutako ipuinen %53,5an emakumeak ageri dira idazle lanetan. Nagusitasun hau baina, hurrengo adin zikloan bukatu egiten da eta irakurleen **adinean gora goazen bitartean, emakume idazleen proportzioak beherako joera hartzen du.** %53,5 0-4 adin tartean, %44, 5-7 adin tartean; %33, 8-12 adin tartean eta %37, 12 urtetik aurrerako irakurleentzat direnetan.


0-4 URTE SAILKAPENA

	EMAKUMEA	GIZONA	BIAK	ANITZA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	30	28	0	0	<p>A pie chart showing the distribution of authors by gender for the 0-4 age group. The chart is split between pink (EMAKUMEA) and yellow (GIZONA).</p>
GAZTELERAZ	8	5	0	0	
GUZTIRA	38	33	0	0	


5-7 URTE SAILKAPENA

	EMAKUMEA	GIZONA	BIAK	ANITZA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	38	57	0	1	 <ul style="list-style-type: none"> EMAKUMEA GIZONA BIAK ANITZA
GAZTELERAZ	14	10	0	0	
BESTELAKOAK	2	1	0	0	
GUZTIRA	54	68	0	1	

8-12 URTE SAILKAPENA


	EMAKUMEA	GIZONA	BIAK	ANITZA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	19	53	0	0	 <ul style="list-style-type: none"> EMAKUMEA GIZONA BIAK ANITZA
GAZTELERAZ	23	33	0	0	
GUZTIRA	42	86	0	0	

>12 URTE SAILKAPENA

	EMAKUMEA	GIZONA	BIAK	ANITZA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	9	23	0	0	 <ul style="list-style-type: none"> EMAKUMEA GIZONA BIAK ANITZA
GAZTELERAZ	25	34	0	2	
GUZTIRA	34	57	0	2	

Bereziki kezkarria da gai zehatzak lantzen dituzten liburu, atlas edo entziklopedietan dagoen emakume idazleen eskasia. Bertan aztertutako 163 liburuetatik soilik 41 dira emakumeek idatzia. **Hau da, %25a.** Ipuinen atzean geroz eta emakume gehiago dauden arren, ez da berdina gertatzen errealitatearen kontagintza xede duen literaturan.

GAIK SAILKAPENA


	EMAKUMEA	GIZONA	BIAK	ANITZA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	6	37	1	14	 <ul style="list-style-type: none"> EMAKUMEA GIZONA BIAK ANITZA
GAZTELERAZ	35	48	10	12	
GUZTIRA	41	85	11	26	

Bestetik, Oiartzungo liburutegiko datu basean jasoak dauden datuetan, egileen kasuan, maiz soilik idazle edota egile bakar baten izena jaso dago, errealki, egile bat baina gehiago direnean. Kasu honetan ere, normalean, gizon eta emakume bat baldin badira egileak, **normalean soilik gizonaren izen eta abizenak dira ageri direnak eta ez emakumearenak.**

ILUSTRATZAILEAK

Idazleekin egin bezala, haur eta nerabeen esku jartzen ditugun liburuen ilustratzaileak aztertu ditugu. Egun emakume ilustratzaile mordo dagoen arren, figura hau ez zen hain ohikoa orain urte batzuk eta aspaldi editatuko liburuetan gizonak dira nagusi ilustratzaileen artean. Desoreka hori nabarmen da oraindik liburutegian; izan ere, Oiartzungo herri-liburutegian ikertutako 589 liburuetatik 179 dira emakumeek ilustratuak, hau da, **liburuen %31a**.

	EMAKUMEA	GIZONA	BIAK	EZ DAGO / EZ DAKIGU	ANITZA
EUSKARAZ	102	169	2	6	37
GAZTELERAZ	75	115	12	22	35
BESTELAKOAK	2	1	0	0	0
GUZTIRA	179	285	14	28	72




Idazleekin ikusi dugun bezala, aldea nabarmena da adin tarte ezberdinei zuzendutako ipuinak aztertuz gero. Hala 0-4 adin tartean, idazleen gisara, emakume ilustratzaileak gehiago dira gizonak baino, izan ere, ikertutako ipuinen %55an emakumeak dira bertako ilustratzaileak.

0-4 URTE SAILKAPENA

	EMAKUMEA	GIZONA	BIAK	EZ DAGO	ANITZA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	30	28	0	0	0	<p>Legend for the pie chart:</p> <ul style="list-style-type: none"> EMAKUMEA GIZONA
GAZTELERAZ	9	4	0	0	0	
GUZTIRA	39	32	0	0	0	

Idazleekin ikusitako joera bera errepikatzen da ilustratzaileekin eta nagusitasun hau bukatu eta irakurleen adinean gora goazen bitartean, emakume ilustratzaileen proportzioak beherako joera hartzen du. %55 0-4 adin tartean, %42,7 5-7 adin tartean; %29,7 8-12 adin tartean eta %19,3 12 urtetik aurrerako irakurleei zuzendutako ipuinetan.


5-7 URTE SAILKAPENA

	EMAKUMEA	GIZONA	BIAK	EZ DAGO	ANITZA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	38	53	0	0	5	 <ul style="list-style-type: none"> EMAKUMEA GIZONA BIAK EZ DAGO ANITZA
GAZTELERAZ	12	12	0	0	0	
BESTELAKOAK	2	1	0	0	0	
GUZTIRA	52	66	0	0	5	

8-12 URTE SAILKAPENA

	EMAKUMEA	GIZONA	BIAK	EZ DAGO / EZ DAKIGU	ANITZA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	22	46	1	3	0	 <ul style="list-style-type: none"> EMAKUMEA GIZONA BIAK EZ DAGO / EZ DAKIGU ANITZA
GAZTELERAZ	16	34	2	4	0	
GUZTIRA	38	80	3	7	0	

>12 URTE SAILKAPENA

	EMAKUMEA	GIZONA	BIAK	EZ DAGO / EZ DAKIGU	ANITZA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	5	27	0	0	0	 <ul style="list-style-type: none"> EMAKUMEA GIZONA BIAK EZ DAGO ANITZA
GAZTELERAZ	13	33	0	15	0	
GUZTIRA	18	60	0	15	0	

Gaiak lantzen dituzten liburu, atlas eta entziklopedietan ilustrazioen jatorria askotan elkarte, fundazioa edota instituzio publiko batean dago, zehazki aztertutako 163 ipuinen % 41ean.

GAIK SAILKAPENA

	EMAKUMEA	GIZONA	BIAK	EZ DAGO	ANITZA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	7	15	1	3	32	 <ul style="list-style-type: none"> EMAKUMEA GIZONA BIAK EZ DAGO ANITZA
GAZTELERAZ	25	32	10	3	35	
GUZTIRA	32	47	11	6	67	

Emakume ilustratzaileak gero eta gehiago dira. Geroz eta neska gehiago erakartzen dituen ofizioa da ilustratzaileena eta euskal haur eta gazte literaturan sona handiko emakumezko ilustratzaileak egon badira; hala nola, Ainara Azpiazu. Maite Gurrutxaga edo Eider Eibar.

Idazleekin ikusi bezala, baina, 0-4 urte dituzten umeei zuzendutako ipuinetan ageri dira bereziki emakumeek egindako marrazkiak. Adin tarte honetan emakumea dira nagusi baina idazle lanetan zein ilustratzaile lanetan, irakurleen adinean gora doazen liburuetan emakume ilustratzaileen presentziak erabat maldan beherako joera hartzen du. Beraz, datuek agertzen duten bezala, badira emakume ilustratzaileek bere egiten ez dituzten eremuak.

Ume txiki txikiei begira diseinatutako ipuinetan emakume ilustratzaileak egon badirela ondoriozta daiteke, haatik ez hainbeste nerabe eta haur helduxeagoei begira ekoiztutakoetan. Idazleekin esan bezala, garrantzitsua da ume eta gazteei eskaintzen dizkiegun liburuetan emakume ilustratzaileak agertzea, izan ere, emakumeak ere ilustratzaileak direla frogatzen baitu horrek eta beraz, neskatoak euren etorkizuna hautatzerako orduan aukera profesional hori aukera bideragarria dela ondorioztatu dezake horrela.

PERTSONAIK

Irakurtzen ditugun ipuinetan edo ikusten ditugun filmetan gure burua irudikatu eta imajinatzen dugu. Ipuinek berebiziko garrantzia dute irudimena lantzeko orduan, eta beraz, askotan pertsonai protagonistaren eskutik hartuta ezagutzen ditugu mundu berriak, jokatzeko modu berriak... perspektiba berriak, azken finean.

Liburu eta ipuinek garrantzi berezia dute sozializazio prozesuan. Izan ere, modu dibertigarrian planteatutako edo jolasarekin uztartuak datozen ikasketak prozesuak sakonagoak izan ohi dira.

Umeak liburuetan aurkitzen ditugun pertsonaiekin identifikatzen dira eta entzun eta irakurtzen dituzten istorioen protagonista bihurtzen dira maila batean. Pertsonaiari gertatzen zaion guztia bere barruan bizi du umeak, eta pertsonaiak hartutako erabakien inguruan hausnartuz, gatazken aurrean nola jokatu ikasten joango da umea.


Aldi berean eta tamalez, oraindik ere sozializazio prozesua generoari estuki lotuta dagoenez, umeek haiengatik zer espero den ikasten dute, baita zer ez den espero. Egoera ezberdinen aurrean zer esan edo egin behar duten, zein jarrera den egoki edo desagoki... Finean, euren sexu identitatea ere ikasten dute euren eskuetara iristen diren liburu eta ipuinen bidez.

PERTSONAIA PROTAGONISTAREN GENEROA

Oiartzungo liburutegian diren liburuetan emakume zein gizonak duten presentzia eta protagonismoa aztertu dugu. Eta datuek argi erakusten dute pertsonaia maskulinoen kopurua femeninoena baino handiagoa dela.

Zehazki, aztertutako 578 liburuetan 311 ipuinetan gizonak dira protagonista nagusia. Hau da, ipuinen %54an. Emakumeak aldiz 128 ipuinetan aurkitu ditugu protagonista lanetan, zehazki % 22an.

	EMAKUMEA	GIZONA	OREKATUA	ANIMALIA	EZ ADIERAZGARRIA	GAIA
EUSKARAZ	71	163	22	40	16	4
GAZTELERAZ	56	146	30	19	1	7
BESTELAKOAK	1	2	0	0	0	0
GUZTIRA	128	311	52	59	17	11



Haur eta gazteei zuzendutako ipuinetan sarri agertzen da **protagonismo-mota banatua**. Hau da, neska eta mutil batez osatua dagoen bikote bat denean protagonista. Aztertutako 578 ipuinetatik 52 ipuinetan aurkitu dugu egoera hau, %9-ean, hain zuzen ere. Bikote parekide batek protagonismoa partekatzen badu ere, askotan ez da berdina bati zein besteari ematen zaion garrantzia eta rol banaketa.

0-4 URTE SAILKAPENA

	EMAKUMEA	GIZONA	OREKATUA	ANIMALIA	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA												
EUSKARAZ	9	25	6	18	0	<table border="1"> <caption>Legend for Protagonist Distribution</caption> <thead> <tr> <th>Color</th> <th>Category</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Pink</td> <td>EMAKUMEA</td> </tr> <tr> <td>Yellow</td> <td>GIZONA</td> </tr> <tr> <td>Light Green</td> <td>OREKATUA</td> </tr> <tr> <td>Teal</td> <td>ANIMALIA</td> </tr> <tr> <td>Dark Red</td> <td>EZ ADIERAZGARRIA</td> </tr> </tbody> </table>	Color	Category	Pink	EMAKUMEA	Yellow	GIZONA	Light Green	OREKATUA	Teal	ANIMALIA	Dark Red	EZ ADIERAZGARRIA
Color	Category																	
Pink	EMAKUMEA																	
Yellow	GIZONA																	
Light Green	OREKATUA																	
Teal	ANIMALIA																	
Dark Red	EZ ADIERAZGARRIA																	
GAZTELERAZ	1	8	0	4	0													
GUZTIRA	10	33	6	22	0													

Emakumeak paper protagonistan aurkitzea nahi baina zailagoa da. Arestian esan bezala, aztertutako ipuinen %22an bakarrik topatu dugu baina proportzio hori aldatu egiten da irakurleen adinaren arabera liburuen sailkapenean.

0-4 adin tartean dauden umeei zuzendutako ipuinetan aurkitzen dugu emakume protagonistaren kopuru baxuena: %14.


Eremu honetan kontutan hartu beharra dago haur hezkuntzako umeei zuzendutako ipuin askotan protagonistak **animaliak** direla. Euskaraz liburu ugarian animalia hauen sexua argi erakusten ez den arren, gaztelerako bertsiora jotzen badugu ageria da animalia protagonista gehientsuenak arrak direla.



Alde nabarmena da, eta soilik gizakiek irudikatutako protagonismoa aintzat hartuz gero, bi aldiz handiagoa da mutil eta gizonen protagonismoa.

Desoreka hau ez da hain nabarmena irakurleen adinean gora goazenean, baina emakumeen protagonisten eskasia bere horretan jarraitzen du. Zehazki, emakume protagonisten presentzia %28koa da 5-7 adin tartean; %36koa 8-12 adin tartean eta %27koa 12 urtetik aurrerako irakurleei zuzendutako ipuinetan.

5-7 URTE SAILKAPENA


	EMAKUMEA	GIZONA	OREKATUA	ANIMALIA	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	25	54	0	8	9	 <ul style="list-style-type: none"> EMAKUMEA GIZONA OREKATUA ANIMALIA EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	9	14	0	0	1	
BESTELAKOAK	1	2	0	0	0	
GUZTIRA	35	70	0	8	10	

Protagonistak mutilak, bihurriak izaten dira gehienetan bai euskaraz eta bai gazteleraz, neskak lasaiagoak eta txukunagoak agertzen dira orokorrean.





Esan beharra dago ere, estereotipoak apurtzen dituzten liburuak ere agertzen zaizkigula, non mutilak protagonista izaten jarraitzen duten kasu gehienetan, baina estereotipoak apurtzeko helburuarekin idatziak daude, horren adibide dira “Elmer “ edota “Oliver Button Poxpolin bat da”.

8-12 URTE SAILKAPENA

	EMAKUMEA	GIZONA	OREKATUA	ANIMALIA	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	22	38	4	2	6	 <ul style="list-style-type: none"> EMAKUMEA GIZONA OREKATUA ANIMALIA EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	24	29	3	0	0	
GUZTIRA	46	67	7	2	6	

Azpimarragarria da 8-12 urte bitarteko tartean topatu ditugun protagonismoak. Adin tarte honetan istorioak aberatsagoak izaten hasten dira, liburu luzeagoak topatzen goaz. Gizonen biografiaren edo berain istorioen liburu asko topatu ditugu euskaraz, “Tio Xentimo”, “Garmendia errege” “Kittano”, “Zakarruko”, edo izen propioekin “Lazkao txiki”, non gizonen izenak agertzen diren eta aipatzen diren, emakumeak aldiz orokorrean anonimoak dira; “Andres Urdaneta esploratzaile ausarta” liburuan non emakume bat aipatzen den soilik, edota “Enbeitarrak” azkeneko honetan familia oso baten istorioan emakumeen presentzia minimoa delarik; **emakumeen biografia istoriatuak aldiz euskarazko laginean ez dugu bakar bat ere topatu.**



Biografietaz gain gizonak protagonista eta beraien komerik islatzen dituztenak topatu ditugu emakumeenak baino askoz gehiago ere, bai euskaraz eta bai gaztelera ere. Gainera, euskal kulturari lotutakoak dira istorio hauek, aztertutako liburuetan emakumezkoak gure herriko genealogian ez dute protagonista presentziarik.

Aldiz, sorginak, neska gazteak botere magikoekin edo liburu magikoetan oro har, neskak dira protagonistak. “Sorgin txikia”, “Sorgintxoren laguntxo debekatua” eta “Erreskatatzaile magikoak eta alderantzizko urtebetetzea” liburuetan edota Nur, Mila y luna, Kristall Ball eta Isadora Moon liburu kolekzioak horren adibide dira. Mutilak protagonistak direnean, ez dugu formula hori topatu Harry Potter-en liburu bildumean izan ezik.



Eredu positiboak ere topatu ditugu emakume protagonisten kasuan, Amanda Black-en eta “Ume desagertuaren kasu”an adibidez, estereotipoak apurtu eta emakume azkar eta indartsuak topatzen ditugulako.

>12 URTE SAILKAPENA

	EMAKUMEA	GIZONA	OREKATUA	ANIMALIA	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	9	20	2	0	1	<ul style="list-style-type: none"> EMAKUMEA GIZONA OREKATUA ANIMALIA EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	16	40	5	0	0	
GUZTIRA	25	60	7	0	1	


Adin tarte honetan aztertutako liburuetan, gizon protagonisten presentzia bi hizkuntzetan bikoizten da. Klasikoak topatu ditugu, baina baita emakume protagonista indartsu batzuk “Sinsajo” kolekzioan adibidez.

Atal honetan baina, gazteei euskaraz edo gaztelera zuzendutako komikien kopurua oso ezberdina da, askoz gehiago topatzen ditugu gaztelerez euskaraz baino. Eta komikietan emakumeen presentzia txikia da, protagonistetan bereziki, baita komiki guztian zehar ere. Emakume bat ere agertzen ez diren Mortadelo y Filemon “El caso del bacalao” liburuaren kasua topatu dugu edo “Axterix eta Obelix Galiako bidaian” liburua, non 3 biñetetan akziorik gabe azaltzen diren emakumeak.

Emakumeak protagonista direnean oso maiz maitasunaren inguruko istorioak topatzen ditugu, oso gutxi dira emakume abenturazaleak edo rol ezberdinetan topatzen ditugun protagonistak eta sentimenduak hari nagusi bezala topatzea ohikoa da.

Nesken jarrera estereotipatuak maiz topatu ditugu baita ere testuetan.

GAIK SAILKAPENA

	EMAKUMEA	GIZONA	OREKATUA	ANIMALIA	GAIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	6	26	10	12	4	 <ul style="list-style-type: none"> EMAKUMEA GIZONA OREKATUA ANIMALIA GAIA
GAZTELERAZ	6	55	22	15	7	
GUZTIRA	12	81	32	27	11	

Bereziki nabarmena da, errealitatea islatzeko bokazioaz idatzitako liburuetan dagoen emakumeen presentzia eskasa. Aztertutako liburuetan protagonista nagusia gizona izan ohi da, modu oso esanguratsuan gainera, izan ere emakumea ikertutako aleen %7an bakarrik ageri da protagonista gisa.

Aزتتutako liburu batean baino gehiagotan, ez da ezta emakume bat bera ere agertzen liburu guztian zehar, ez hitzez adierazita ezta argazki edota ilustrazioen errepresentazio bidez ere, horren adibide bat, “La guerra de la independencia norteamericana” historia liburua da.

Emakumearen ekarpena historian beti gutxietsi denaren beste adibide bat, “Lartaun abesbatza: Oiartzunen kanta-soinua” liburua da, bertan ageri diren izen propio ia guztiak gizonenak dira, nahiz eta abesbatzetan emakume askok parte hartu eta talde bezala maiz agertu, euren izen propioak ez dira inondik ageri.

“El cuerpo humano” liburu bilduma klasikoan ere esanguratsua giza gorputzaren adibide nagusi eta bakartzat gizonarena hartzen dela, emakumearen gorputzari apenas erreparatu gabe.

Gaiak sailkapenaren barruan kokatzen diren liburu, atlas eta entziklopediek zenbait errealitate eta egoeren gaineko jakintza eta ezagutzak azaltzea dute helburu, eta beraz, liburu hauek modu didaktiko eta pedagogikoan erabiliak izan ohi dira, eskolan irakasleen esku eta etxean gurasoen esku.

Horiek horrela, kontutan hartu beharra dago Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan indarrean den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak agintzen duenez, Hezkuntzak emakumeen jakintza eta gizadiaren garapenari egiten dion ekarpen sozial eta historikoa integratu behar duela, ematen diren edukiak berrikusiz eta, hala badagokio, zuzenduz.

Emakumeen jakintza eta gizadiaren garapenari egiten dion ekarpen sozial eta historikoa jasotzen duten ipuin eta liburuak egon baldin badaude ere, kopuruan askoz urriagoak dira.

Aipatu beharra dago, emakumeen jakintza eta gizadiaren garapenari egiten dion ekarpen sozial eta historikoa bildu eta gizarteratzeko xedez sortutako ipuin eta liburu anitz aurki daitezkeela inguratzen gaituzten hizkuntzetan. “Cuentos de buenas noches para niñas rebeldes” edo “Mujeres de ciencia” dira halako zenbait adibide.

Denbora beharko da istorioetan emakume historikoen presentzia handitzeko, normalean pertsonai historikoak zeharka aipatzen direnean gehienetan, gizonen aipuak dira batik bat; presidente, zientzialari... Emakumeen presentzia eskasa da iruditegi historikoan oraindik ere.

“Por supuesto -piensa Oda-. Por supuesto tenía que ser un urinario para hombres. Sólo son hombres los que deciden qué aspecto tienen que tener las cosas en esta historia.” Rojo , azul y un poco de amarillo liburuan

topatu dezakegun testua da, Bjorn Sortland y Las Elling egilearena, 8-12 urtei zuzendutako liburua. Arte liburu honetan ez da emakume margolari bakar bat ere ageri nahiz eta kritika egin.

TALDE PROTAGONISMOA

Bilduma askotan maiz ageri da taldearen kontzeptua. Halakoetan baina, lidergo maskulinoa izaten da ardatz, nahiz eta liburuan zehar taldeko kide diren lagunak abenturetan lagundu. Banaketa argia dago protagonista eta taldeko bigarren mailako pertsonaien artean.

Mutil talde ugari aurki daitezke haur eta gazte literaturan eta mutil talde horietan maiz aurki daiteke neska bat. Gehienetan baina, neska bakarra izaten. “Los cinco” edo “Gol” bildumak dira horren lekuko.


Esanguratsua da baina, emakumeak protagonista diren ipuin askotan, talde gisa direla protagonista. Mutil protagonistekin gertatzen ez den bezala, emakumeek protagonismoa taldean partekatzen dute, neska talde gisa. Halakoetan denak dira pertsonaia protagonista, ez dago haien arteko hierarkiarik.

Adibiderik esanguratsuen Geronimo Stilton bilduma ezaguna da. Geronimok ere lagun taldea duen arren, eta abentura gehienak taldearekin bizi baditu ere, protagonista Geronimo da, bere izena ageri da azalean eta ilustrazioetan bera da jaun eta jabe. Haatik, ez da berdina gertatzen Tea Stiltonen bilduman. Teak klub edo talde bat du eta taldea bera da protagonista.


Taldean jarduten diren liburu gehienak 8-12 urteko haurrei zuzendutako liburuetan topatu ditugu eta batez ere neskak protagonistak direnean.

Talde protagonismo hau zer nolako den ikusteko ondorengo taula txertatzen dugu.

	PAREKIDEA	NESKA TALDEAN MUTIL BAKARRA	MUTIL TALDEAN NESKA BAKARRA	NESKAK BAKARRIK	MUTILAK BAKARRIK
EUSKARAZ	9	4	8	0	4
GAZTELERAZ	3	7	7	7	4
BESTELAKOAK	0	0	0	0	0
GUZTIRA	12	11	15	8	8



0-4 URTE SAILKAPENA

	PAREKIDEA	NESKA TALDEAN MUTIL BAKARRA	MUTIL TALDEAN NESKA BAKARRA	NESKAK BAKARRIK	MUTILAK BAKARRIK	GRAFIKOA
EUSKARAZ	5	0	1	0	2	 <ul style="list-style-type: none"> PAREKIDEA MUTIL TALDEAN NESKA BAKARRA MUTILAK
GAZTELERAZ	0	0	0	0	0	
GUZTIRA	5	0	1	0	2	


Txikienen liburuan ez da ohikoa taldean dabiltzan protagonistarik topatzea. Topatu ditugun gehiengoak bikotean eta modu parekidean izan dira. Aldiz, mutilak bakarrik taldean bai, baina neskak bakarrik ez ditugu topatu.

5-7 URTE SAILKAPENA

	PAREKIDEA	NESKA TALDEAN MUTIL BAKARRA	MUTIL TALDEAN NESKA BAKARRA	NESKAK BAKARRIK	MUTILAK BAKARRIK	GRAFIKOA
EUSKARAZ	4	1	3	0	1	 <ul style="list-style-type: none"> PAREKIDEA NESKAK ETA MUTIL BAT MUTILAK ETA NESKA BAT
GAZTELERAZ	0	0	1	0	0	
BESTELAKOAK	0	0	0	0	0	
GUZTIRA	4	1	4	0	1	


Aurreko adin tartean bezala talde protagonismoak ez dira oso handiak adin tarte honetan, baina aipagarria da ere hemen neskak bakarrik dauden talde bat ere ez dugula topatu.

8-12 URTE SAILKAPENA

	PAREKIDEA	NESKA TALDEAN MUTIL BAKARRA	MUTIL TALDEAN NESKA BAKARRA	NESKAK BAKARRIK	MUTILAK BAKARRIK	GRAFIKOA
EUSKARAZ	0	3	2	0	1	 <ul style="list-style-type: none"> PAREKIDEA NESKAK ETA MUTIL BAT MUTILAK ETA NESKA BAT
GAZTELERAZ	1	6	5	4	2	
GUZTIRA	1	9	7	4	3	

Talde kopuru handiena aurkitu dugun adin tarteak hau. Neska taldean mutil bakarria da aurkitu dugun formula errepikatuen eta gaztelarazko liburuetan protagonismo eredu honek euskarazkoa liburuena bikoizten du. Euskaraz baina ez dugu neskek bakarrik aritzen den talderik topatu.

>12 URTE SAILKAPENA

	PAREKIDEA	NESKA TALDEAN MUTIL BAKARRA	MUTIL TALDEAN NESKA BAKARRA	NESKAK BAKARRIK	MUTILAK BAKARRIK	GRAFIKOA
EUSKARAZ	0	0	2	0	0	 <ul style="list-style-type: none"> ■ PAREKIDEA ■ NESKAK ETA MUTIL BAT ■ MUTILAK ETA NESKA BAT ■ NESKAK BAKARRIK
GAZTELERAZ	2	1	1	3	2	
GUZTIRA	2	1	3	3	2	

Talde protagonismoa berriz ere jeisten da adin tarte honetan. Euskaraz berriz, neskek bakarrik protagonista diren talderik ez dugu topatu beste adin tarteetan bezala.

ESTEREOTIPOAK: IKUSPEGI ANDOZENTRIKOA

Tamalez, gizarteko beste esparru ezberdinetan bezala, estereotipoak eta rolak oso presente daude haur eta gazte literaturan. Berdintasunaren aurkako balio eta jarrerak sustatzen dituzten estereotipo eta rol hauek, irakurle ditugun umeen eredu bihurtuko dira eta etorkizunean, gizon eta emakume direnean, berdintasunaren aurkako eruedetan oinarrituko dituzte euren harremanak, diskriminazioaren katea ezin hautsiz.




Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak sexismoaren aurreko pentsamendu kritikoa sustatzea galdegiten dio Hezkuntzari. Sexuaren araberako aurreiritziak, estereotipoak eta rolak ezabatuz eta jokabide-eredu soziokulturalen arabera eraiki eta emakumeei eta gizonari esleitutako jarrerak baztertzearen aldeko hautua egiten du legeak, ikasle eta irakasle orori garapen pertsonal integralerako aukerak bermatzeko.

Sexismoaren kontra egiteko, estereotipoen aurka egin behar da eta ipuinetan maizegi ageri dira eredu estereotipatuak.



PERTSONAIA PROTAGONISTEN EZAUGARRI ESTEREOTIPATUAK

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA
EUSKARAZ	166	89	3
GAZTELERAZ	111	43	0
BESTELAKOAK	2	1	0
GUZTIRA	279	133	3



Haur eta gazte literaturan estereotipo eta rolek duten presentzia aztertzeko asmoz, pertsonaia protagonistetan jarri dugu azpimarra lehenik eta behin, horiek modu estereotipatuan edo ez ageri diren ikertu nahi izan dugu. Zehazki, 0 eta 16 urte bitarteko haurrei zuzendutako 415 ipuinetan jarri dugu lupa eta haletako 279 aletan, hau da **%67an, pertsonaia modu estereotipatuan ageri dela frogatu dugu.**

0 eta 4 urte bitarteko umeei zuzendutako ipuinetan idazle eta ilustratzaileak tentuz edo behintzat zorrotzago aritzen direla ondoriozta daiteke. Izan ere, adin tarte horri begirako aztertutako 71 ipuinetan 39 pertsonaia ez estereotipatu ikusi ditugu, 32 estereotipatu aurkitu ditugun bitartean. Hau da, % 55 ez estereotipatua eta %45a estereotipatua. Kontutan izan behar da baina, animalai indefinituen protagonismo maila oso altua dela euskarazko adin tarte honetan topatzen ditugun ipuinetan.

Adin tarte ezberdinei zuzendutako ipuinak aztertuz gero, baina, joera aldatu egiten da eta aldea ere nabarmena da. Izan ere, **irakurleen adinean gora doazen bitartean, estereotipoen presentzia ere gora doa.** Honakoa da pertsonaia estereotipatuen presentzia adin ziklo ezberdinetan: %63 5-7 adin tartean; %76,8 8-12 adin tartean eta %78,5 12 urtetik aurrerako irakurleentzat direnetan.

0-4 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	27	31	0	<p>Legend:</p> <ul style="list-style-type: none"> BAI EZ
GAZTELERAZ	5	8	0	
GUZTIRA	32	39	0	

Pertsonai estereotipatu gutxien aurkitu dugun adin tartea da hau, baina egon badaude, pertsonaia estereotipatuen portzenaia ez da txikia eta. Jantzkeran eta jarreran topatu ditugu pertsonai nagusien estereotipo gehien, mutilak urdinez eta neskak arroxaz jantzita ikusi ditugu maiz.



5-7 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	63	33	0	
GAZTELERAZ	12	12	0	
BESTELAKOAK	2	1	0	
GUZTIRA	77	46	0	

Euskarazko liburuetan estereotipoak betetzen dituzten liburu askoz gehiago topatu ditugu, gaztekeraz aldiz, estereotipoak betetzen dituztenak eta ez dituztenen kopurua orekatuagoa da.



8-12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	51	18	3	
GAZTELERAZ	46	10	0	
GUZTIRA	97	28	3	

Leon Eslalom dribilatzailea liburuan emakumeen rola soilik ama izatea da. Jarraian jartzen dugun liburuaren pasartean lagunen alaba batzuk etxera iristerakoan topatzen duteneko. Ama zaintzaileak dira soilik, gainera beraien iritziak eta beraiei zuzentzeko modua ere estereotipoei erantuzten die.

“- Entzun ondo! Michi lodikoteak adarra jo digu eta datozen bi asteetan futbol-zelai gabe gaude...Eta horregatik, ez daukat astirik beheko txatxala horientzako. Argi geratu da?”

Bere ama lanean murgilduta zegoen eta harritia begiratu zion.

- Orduan biok ados gaude horretan!-erantzun zuen Rabanek amaren ordeaz, eta eskaileretan behera abiatu zen.

Aizue, haurtzaindegiko ileapaintzaileak, zuen amamaren txakurtxoak zuen barbie panpinatxoak txiki-txiki egin ditu! Izututa, neskatoak amen batean joan ziren aterantz. ”Leon Eslalom-driblatzailea, Futbolari basatiak. Joachim Masannek. 8-12 urterik zuzendua.

>12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	25	7	0	
GAZTELERAZ	48	13	0	
GUZTIRA	73	20	0	


“Zoey y yo hemos intentado consolar a Chloe.. Sé que lo hace con buena intención, pero cuando se pone así acaba siendo una REINA DEL MELODRAMA.” Un cumpleaños no muy feliz. Rachel Renée Russel. 12 urtetik gorakoei zuzendua.

Irakurlea geroz eta helduagoa izan, orduan eta estereotipo gehiagorekin egiten du topo. Aintzat hartu behar da gainera, adinean gora doazen horiek geroz eta gehiago jabetzen direla irakurketaz eta hortaz, nahi edo ez nahi, berdintasunaren aurkako balio eta jarrerak sustatzen dituzten estereotipo eta rol hauek, irakurle diren umeen eredu bihurtzen direla. Gaur egun ume eta nerabe diren horiek etorkizuneko gizon eta emakumeak izango dira, eta beraz, euren harremanak berdintasunaren aurkako eruedetan oinarrituko balituzte, ez genuke diskriminazioaren katea nola hautsi.


BIGARREN MAILAKO PERTSONAIEN EZAUGARRIAK

Pertsonaia protagonistekin gertatzen den bezala, bigarren mailako protagonistak ere modu estereotipatuan agertu ohi dira. Zehazki, 0 eta 16 urte bitarteko haurrei zuzendutako 415 ipuinetan jarri dugu lupa eta haietako 297 aletan, hau da %72an, pertsonaia modu estereotipatuan ageri da.

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA
EUSKARAZ	172	72	14
GAZTELERAZ	124	29	1
BESTELAKOAK	1	2	0
GUZTIRA	297	103	15




Pertsonaia protagonistarekin gertatu bezala, 0 eta 4 urte bitarteko umeei zuzendutako ipuinetan idazle eta ilustratzaileak zorrotzago aritzen dira bigarren mailako pertsonaiekin ere. Izan ere, adin tarte horri begirako aztertutako 71 ipuinetan bigarren mailako 39 pertsonaia estereotipatu ikusi ditugu, hau da, % 55.




Irakurleen adinean gora doazen bitartean estereotipoen presentzia ere gora doa, pertsonaia protagonistekin gertatzen den moduan.

0-4 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	29	29	0	 <ul style="list-style-type: none"> ■ BAI ■ EZ ■ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	10	3	0	
GUZTIRA	39	32	0	



5-7 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	69	14	13	 <ul style="list-style-type: none"> ■ BAI ■ EZ ■ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	15	9	0	
BESTELAKOAK	1	2	0	
GUZTIRA	85	25	13	

Pertsonaia protagonista estereotipoetatik at, baina bigarren mailako pertsonaiak guztiz estereotipatuak ageri zaizkigun kasuak ere topatu izan ditugu. Matxalen eta Mitxina liburua dugu horren adibide. Matxalen neska mugitua, zaratatsua eta bihurria da, aldiz bigarren mailako pertsonaiak, ama zaintzan, aita egunkariarekin eta irakasle emakumea agertzen zaizkigu liburuan zehar.



8-12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	54	17	1	<ul style="list-style-type: none"> ■ BAI ■ EZ ■ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	49	6	1	
GUZTIRA	103	23	2	

Helduagoei zuzendutako liburuetan arestian aipatutako istorio biografikoetaz gain abenturak eta misterioa dira gai nagusiak, bertan neskak ere izatean dira talde istorioetan eta aniztasuna ematen da beraien izaeretan baina ez inguruko pertsonaietan, gaiztoak, poliziak, jakintsuak... gizonak izan ohi dira.

Agatha Mystery kolekzioan esaterako, neska protagonista den arren, bere istorioetan gizonez inguratua agertzen da.

“La esfinge de Hyde Park”-en, Sherlock Lupin y yo kolekzioaren liburuan ere, neska narratzaile moduan agertzen den arren, protagonismo elkarbanatua dauka. Deskribapenetan lagun mutilek tarte handia izateaz gain, inguratzen duten bigarren mailako protagonisten lanbideak ere kuantitabo eta kualitaiboki estereotipoetan sakontzen dute. Emakumeak etxeko langile eta idazkari moduan agertzen diren bitartean, gizonak polizia, museo zuzendari eta zuzendari-ordea, unibertsitateko irakasle, maiordomo, zirkoko jabe, erredakzio buru, arte trafikatzaile eta kazetari moduan aurkitu ditzakegu,

>12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	20	12	0	<ul style="list-style-type: none"> ■ BAI ■ EZ
GAZTELERAZ	50	11	0	
GUZTIRA	70	23	0	

Adin tarte honetan beste adin tartean bezala estereotipoak agertzen zaizkigun pertsonaiak estereotipoak betetzen ez dituztenak baina gehiago dira aztertutako liburuetan.

ESTEREOTIPOAK OROKORREAN

Pertsonaien ekintzetan arreta jarritz gero, mutil protagonistek mugimendu handia dute, egoera ezberdinei aurre hartuz. Ipuin klasikoenetan mutilak izan ohi dira mundua eta emakumeak salbatzen dituztenak. Neskak ordea, egoera lasaiagoetan ageri dira, maitasuna eta sentimenduei garrantzia ematen. Indarkeria egoerak gizonezkoek burutzen dituzte, oso adibide gutxietan agertzen dira emakumeak borrokan, eta borrokan ez bada jarrera biolentoetan gizonak topatzea ez da zaila, komikietan berezia da biolentziaren trataera; komiki osoan zehar borrokan pasatzen duten pertsonaiak topatzen ditugularik kasu batzuetan. Poliziarekin gatazkak eta atxiloketak ere gizonezkoen kontuak dira nagusiki aztertu ditugun liburuetan.



Maskulinitate eredu anitzen ausentzia dago. Azaltzen den gizon eredu orokorrak estereotipoetan sakontzen du, arestian esan bezala biolentzia egoerak beraiei soilik egotziz, hala nola, lidergoa eta beste hainbat jarrera konkretu dira orokorrean gizonen deskribapen eta ekintza nagusiak. Honetaz gain gizonetaz zer espero den modu sutilean ere topatu dezakegu:

“-Pechuga de pollo-dijo Carmen al camarero.... Yo tomaré una hamburguesa. Poco hecha.-Entrego su carta-.Gracias. Muy masculino y nada de tonterías. Probablemente le habría molestado su hubiese pedido algo femenino y de moda como una crep. Carmen hizo un ovillo con la servilleta en las manos y le sonrió. Era muy guapo.” Segundo verano en vaqueros. Ann Brashares. 12 urtetik aurrerako liburua.

Maitasunarekiko edo sentimenduekiko interes falta agertzen da maiz liburuetan, taldea mistoa denean, emakumeak dira horretaz mintzatzen direnak:

“El equipo tigre encuentra una carta de amor que parece muy vieja...Biggi se emociona mucho al leer esas romanticas palabras ...sin embargo Luk sonrie con cara de guasa.” El cementerio de los saurios. Thomas C. Brezina. 8-12 urtekoei zuzendutako liburua.



“Niri ere alukeriak egin dizkirate eta ez naiz hortik zehar negarra jotzen ibili edo besteei sastagaia bizkarrean sartzen. Baina gero, gizonen moduan aurpegia eman beharrean, jo eta telefonoa txikitu zidan”. Gatazka gela. Jordi Sierra i Fabra.

Bidaiatzen duten gizonak, lasaiak eta jantziak edo jakintsuak ere topatu ditugu emakumeak ez bezalako jarrerekin, irudietan ere:



Deskribapenetan ere aldeak nabarmenak dira. Neskatoak txukunak, garbiak eta antolatuak ageri dira gehienetan eta emakumeen edertasunari neurriz kanpoko garrantzia eman ohi zaio. Mutilak, ordea, hauek direnengan pertsonaia protagonista, lider jatorra helduen liburuetan edo txikienei zuzendutakoetan alproja, desordenatu eta zikin gisa izan ohi dira deskribatuak.

Izaerari buruko aipuak ere gizonen eta emakumeen kasuan iruditegi ezberdina eskeintzen digute. Gizonak intentzio txarrik gabekoak direnaren iruditegia eskaintzen digute deskribapenen bitartez:


“Ozenki barre egin zuten. Ergel xamarrek ziruditen...Baina ergelkeria onekoak. Mutikoak beti ohi diren diren bezalako ergelak”. 35 kilo esperantza. Anna Galvana. 12 urtetik aurrera.

Eta emakumeen iruditegia aldiz; “Han hasi ziren irakasle guztiak jorratzen eta hauengandik sekulakoak esaten. Neskek mingain gaiztoa dute horrela hasten direnean.” Eskolan ikasten ez direnak. Xabier Olarra. 12 urtetik aurrera.

Lehen aipatu bezala, **talde protagonismoa** ohikoa da 8 urtetik aurrerako irakurleei zuzendutako ipuinetan. Neskak osatutako lagun taldea ageri denean, nahiz eta izaera aldetik aniztasuna agertzeko saiakera egin, eta baita jatorri aniztasuna txertatzen den arren maiz, itxura fisikoan ez da apenas ezberdintasunik eta aniztasunik ikusten eta neska argalak izan ohi dira nagusi.



Bestetik, adin batetik aurrerako emakumeak irudikatzerakoan, zaintza lanekin lotzeko ohitura erabat zabaldua dago ipuinetan. Haur txikienei zuzendutako ipuinetan eta ikerketa laguntzen duten irudietan ikusten den moduan, **emakumea amantalekin** ageri da askotan.





Irakurleen adinean gora goazen neurrian, emakumeak askotan kutsu negatiboa izaten du. Pipertuagoak ageri dira maiz, bigarren mailako protagonista moduan ere; etxean oihuka, etxe eta seme alaben txukuntasunarekin obsesionatuak, nerbioak jota...



Gurasotasunari dagokionez, familia tradizionala da nagusi aurrerago ikusiko dugun moduan, eta hemen ere haurrekiko ardura eta jarreretan ezberdintsunak nabariak dira.

Amak “orjakileak” balira bezala dira irudikatuak irakurleak nerabeak direnean, haur protagonisten nondik norakoak ezagutu edo asmatzeko gaitasuna izango balute bezala. Horretaz gain, emakumeak etxean irudikatzen dira aita baino maizago eta arduratuagoak orokorrean:

“ Mamá todavía está paseando mis zapatos. <NO PUEDES IR AL COLEGIO CON ELLOS Tom. ¡Se caen a trozos!>. <eso nos pasa un poco a todos>, sonrío papá. <¡Habla por ti!>. Mamá le fulmina con la mirada levantando una ceja.>” Una suerte un poquitín genial. Liz Pichon. 8-12 urtekoei zuzendua.

Aldiz, aipuan agertzen den moduan, aita agertzen direnean, lasaiago agertzen dira, ardurarik gabe, zaletasunekin (kirola, berezik futbola, musika, irakurketa, historiaz dakitenak...). Aita sofán behin baino gehiago azaltzen dira, eta ama baino dibertigarriagoak izan ohi dira.

“Tomi, sentado en el sofá, soltó una carcajada, mientras su madre, que preparaba la mesa, lanzó una mirada de reprobación a su marido” ¡Gol! Un gran equipo. Luigi Garlando. 5-7 urtekoei zuzendua.

Gaztelerazko zein euskarazko liburuetan ere eredu errepikatzen da; “Argazkien artean onenak aukeratu eta albunean gordetzen ditut. Aitarena telebistaren aurrean erdi lotan, eta ahaharrausika. Amarena, gelaz gela aspiragailua passatzen.” Musubero mon amour. Anjel Lertxundi. 8-12 urtekoei zuzendua.

Ama bakarrik agertzen den familia eredutan autonomia maila baxua agertzen du emakumeak, eta besteen laguntza behar duen norbanako gisa ageri da; hau euskarazko liburu ezberdinetan topatu izan dugu: “Elur beltza” edo Martin txiki” bezalakoetan, non ama semearengandik lagunduta izan behar duen.

Aitonak eta amonak ere modu ezberdinean aurkezten zaizkigu. Aitona eta amona ere ez dira berdin irudikatzen aztertu ditugun liburuetan, **amonak zaintzan agertzen dira, maitekiro orokorrean eta aldiz aitona jakintsu gisa azaltzen dira:**

“Oporretan aitona-amonaren etxera joaten naiz, landara. Amonak ikusten nauenean. lastan pila bat egiten dit, eta hiru musu heze ematen dizkit aurpegian, eta aitona sermoia botatzen dit, baina ez da min egiteko, bizitzan erne ibiltzen ikas dezadan baizik.” Bittor beratzen liburua, Pasqual Alapont. 5-7 urtekoei zuzendua.




Neska mutilen arteko deskribapenetan, deigarria izan zaigu ere protagonisten deskribapenetaz haratago pertsonaien arteko deskribapenetan ere aurkitu dugun sexismoa:

“Xander dijo que, si de verdad queríamos meternos con Claudia, lo que había que hacer era implicar a otras chicas. Porque según Xander, las chicas son como los tiburones: cuando huelen sangre, acuden como locas a ver que cazan.” Xande.

Cierto. Los tíos casi siempre vamos en plan juego. O sea, un tío te parte la cara pero luego te levanta y dice: venga bro, ya está>. Y todos tan contentos.

Pero las chicas no juegan, mal. Las chicas son MALAS. Van a por ti a muerte. Se pasan las veinticuatro horas del día en ClickChat destripándose entre ellas.” Los gemelos Tapper se declaran la guerra. Geoff Rodkey. 8-12 urtekoei zuzendua.

Emakumeen arteko gatazkak eta jeloskortasunak ere maiz atera dira. Emakumeen arteko lehia mahaiganineratuz.



Sentimenduen adierazpenean ere emakumeen sentimenduekiko jarrerak norabide berdinean deskribatzen dituztenak topatu ditugu:

“Zoey y yo hemos intentado consolar a Chloe.. Sé que lo hace con buena intención, pero cuando se pone así acaba siendo una REINA DEL MELODRAMA.” Un cumpleaños no muy feliz. Rachel Renée Russel. 12 urtetik gorakoei zuzendua.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak hezkuntzan erabiltzen diren baliabidetan hizkuntza eta irudi ez sexistak dituzten materialen alde egitea gomendatzen du eta hortaz, aholku hau oso presente izan behar dugu ilustrazioak eta hizkuntza aztertzerako orduan.

Ilustrazioetan, deskribapenetan esan bezala, maiz aurkitzen ditugu eredu estereotipatuak. Koloreetatik hasi eta pertsonaien janzkeraraino.



Emakumeen estetikaren garrantziari dagokionez, emakumeen gorputza eta janzkeraren inguruko elkarrizketa eta deskripzioak gizonezkoen gorputzen igurukoak baina maizago topatu ditugu. Gainera emakumeen edertasunaren ingurukoak hitzez eta ilustrazio bidez ere adierazten dira batez ere adinean gora goazeanen:

“-Hay dos clases de aplausos-explico el profesor-. Pongamos otro ejemplo: Cuando las tres hermanas Mazapán dan un salto de cinco metros de altura en el trampolín y hacen piruetas, el público aplaude encanta. ¿Por qué? Porque saben hacer algo y por lo guapas que son. Sobre todo la señorita Rosa dijo Maxchen en voz alta. Si las tres chicas fueran feas, no tendrían ni la mitad de éxito, incluso aunque saltaran dos metros más alto.” El hombre pequeño. Erich Kastner. 8-12 urtekoei zuzendua.

Deskripzioak eta elkarrizketatik haratago epaia ere emakumeei egozten zaie. Nola jantzi edo makilatuaren ingurukoak topatu ditugularik:

“Oso gona motza zerraman eta alkandoa beltz estu-estua. Ilea, luzea eta beltza, bizkarrean zabaldu zitzaion zitzaion neskak buru-kolpe batez astindu zuenean. Aurpegia atsegizalea zeukan: ezpain handiak, begi biziak, makilaje gehiegirekin”. Gatazka gela. Jordi Sierra i Fabra. 12 urtetik aurrera.



Modarekiko interesa orokorrean emakumeena da, eta neskak protagonismoa taldean agertzen denean taldekoen zaletasunak adierazterakoan baten batena ia beti moda da.

Adin guztiak zeharkatzen ditu, amek ere horren inguruko kezka azaltzen dituztelarik:

“Nuestro coche no es muy grande, y como siempre llevamos muchas bolsas, vamos muy cómodos. Aunque papá dice que no es cómodo, que mamá no necesita trece modelitos para tres días.” Nana y yo. Jenny Valentine. 8-12 urteri zuzendua.


“Llegó a casa con un aire tan fúnebre que cuando su madre, que estaba sentada en la cocina, levanto los ojos de su triste yogur desnatado (quería perder unos kilos y esa era toda su comida) casi se asustó”. El amuleto mágico. Brunelia Patt. 8-12 urteri zuzendua.

Zer nola jantzi eta horrekiko elkarrizketak ere emakumeen kontu bezala agertu zaizkigu.



Emakumearen errepresentazio sexualizatuari dagokionean, liburuetan topatutako argazki edota ilustrazioetako emakumeen errepresentazioa maiz oso sexualizatu agertzen da, batik bat txirindularitzaren inguruko liburu edota komiki kutsuko ilustrazioetan emakumeak ageri direnean. Baina gainontzeko kasu askotan ere, gorputzaren garrantzia azpimarretzerakoan edo deskribatzerakoan emakumeen estetikari garrantzi handia ematen zaio.

Muturreko bi adibide topatu ditugu ikerketan, bata euskaraz eta bestea gazteleraz; euskaraz 1991ean argitaratutako eta Antton Kazabon Amigorenaren Proxpero Donostian dugu. Bertan gizon baserritar bat Donostiara doa eta horrelako irudi zein hitzak topa ditzazkegu:



“- Hau duk hau ganadua, eta ez gure ikuilukoa!

Nahiko lanak zituen alde batera eta bestera begira, bere zarpa zaharrak ia galdua...batek soineko motza, besteak motzagoagia, honek transparentea, horrek askatua, hark lotu gabea...bestea makurtu egin dela biak bistan dituela,...

“-Gure perpetua gaixoa santa bat duk baina, hauetako bat eramango nitek egun pare baterako, berriro ere gizon eta gazte senti nadin. Niretzat erretiro ona izango huke horrelako lan extra eginda.” Proxpero Donostian. 8-12 urtekoei zuzendua.

Honi emaztea etxean itxoiten dagoela ere gehitu behar zaio:



Beste muturreko liburua “La niña de rojo” da, txanogorritxuren bertsio gaurkotua dena, pertsonaia nagusiak hirian zehar topatzen dituen emakumezkoen irudiak oso sexualizatuak daude etengabe.



Baina ez dira bakarrik, han hemenka beste irudi batzuekin topatu gara:



Sexualizazio hori gizonen jarreretan ez dugu topatu baina.

Emakumeek ikusgarritasuna txirindularitzarekin zer ikusia duten liburuetan oso eskasa da, horren adibide da, "Oartzungo txirindulariak" liburua, bertan Oartzungo gizon-mutil txirindulari mordoiari eskaintzen zaio tartea, baina neska gazte bakarra ageri da liburuaren amaieran. Bestalde, emakumeak ageri direnean, sari banaketa argazkietan edota neskalgun, emazte edota ama roletan izaten da soilik, sari banaketa irudietan emakume loreontzi kontzeptu gisa eta oso modu sexualizatuan gainera. Horren adibide, "Marino Lejarreta: hamalau ahaleginetako poza" liburuan behin baina gehiagotan errepikatzen den irudi moten adibidetakoa bat.




Testuan ere arreta jarri dugu izan ere, maiz ageri da hizkien artea **hizkuntza sexista**.

Gaiak sailkapenari erantzuten dioten liburuetan gai zehatz baten inguruan modu neutroan aritzen ahalegintzen direnez gaiaren inguruko narrazio edota errepresentazioetan estereotipoak ez dira oso argi ageri; baina gaztelerazko liburuaren kasuetan, hizkuntza sexistaren erabilera nabarmena da. "Enciclopedia del gato" izeneko liburua edota drogen inguruko liburuxka dira adibide argienak.

Deigarria den beste elementu bat, **azalen kolorea** da. Adinean aurrera joan ahala, baztertu egiten dira Haur Hezkuntzarako pentsatuak diren azal koloretsu eta deigarriak. Horien ordeztan, baina, azal binarioak erabiltzen dira eta hemen ere arrosa, edo tonalitate antzekoak, neska protagonista diren ipuinetan eta urdinak edo tonalitate indartsuagoak, aldiz, mutilak protagonista direnean.

Neska protagonista diren liburuetan:



Mutila protagonista den liburuetan:



Jolasen estereotipatzeari dagokionean, mutilan futbolean eta neskak haur zaintzaile klubarekin antolatua topatu ditugu. Txikitatik neskak panpinekin ikusi daitezke eta mutilak adin guztiak zeharkatzen futbolean.



"El misterio de los árbitros dormidos" Roberto Santiagoren liburuan:

"...Corre tan rápido que te olvidas de que es chica y que la asociación de padres nos obligo a méterla en el equipo a la fuerza porque decían que tenía que haber más chicas. Es bastante buena, le gusta mucho mandar...." 8-12 urtekoei zuzendua.

Bestalde, jolasen inguruko liburuetan ere, jolas motak neska ala mutilen estereotipoen arabera banatzen dira, horren adibide da "Betiko jolasak" liburuan egiten duten banaketa, soka saltoan edo antzeko jolasen errepresentazio grafikoetan nabarmenki neskak irudikatzen dira eta futbola edo baloi jolasetan oro har mutilak.



Azkenik, **atal berezitu bat beharko lukete sorginek**. Askota eta asko dira sorgina paperean irudikatzen diren emakumeak.

Esanguratsua da ere, esparru profesional anitzetan ageri ez diren emakumeak, fikziozko lanbide honetan agertzea, eta hainbeste alditan agertzea gainera.




Gaiak sailkapenaren barruan ere, erabat estereotipatuak ageri diren pertsonaiak dira sorginak. Ankerrak, itsusiak, beldurgariak, gaiztoak,... halako ezaugarri eta adjektiboekin lotzen dira sorginak. Aldiz, gizonak azti edota mago moduan ageri dira kondaira liburuetan, askoz estatus hobea eta pertsona atsegin eta jakintsu gisako ezaugarriak lotuak. Sorginen errepresentazio orokortuaren adibide da jarraian aurkezten dugun irudian ageri den marrazkia, “Sorginen liburua” lanetik ateratakoa.



NESKAK ERABAKIAK HARTZEN

Nesken presentzia bai, baina zer nolakoa den ere garrantzitsua delako aztertu dugu 12 urtetik gorakoen liburuetan adierazle hau, erabakiak hartzen dituzten emakumeak ageri diren ala ez, hain zuzen ere. Erabakiak hartzen ez dituzten neska kopuru altuagoa agertu zaigu liburuetan.

>12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	11	21	0	 <ul style="list-style-type: none">BAIEZEZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	25	34	2	
GUZTIRA	36	55	2	

NESKEN ARTEKO SOLASALDIAK

Adin guztietan jarri ez dugun aldagaia da honako hau, soilik 12 urtetik gorakoei zuzendutakoetan aztertu dugu. Liburuak mamitsuagoak direlako eta pertsonaien arteko solasaldiak pisua hartzen dutelako. Ikertu ditugun liburuetatik, emakumeak beraien artean liburu guztian zehar hitz egiten ez duten liburu gehiago topatu ditugu beraien artean hitz egiten dutenak baino.

Adierazi beharra dugu kopuru hau hain altua izatea komikiek eragin dutela hein handi batean. Emakumeen presentzia baxuak eta hauen protagonismo ezak oso nabarmenak direlako literatura mota honetan. Lucky Luken “*Remontando el mississippi*” oso argi ikusten da hau. Emakumeak adinean gora joatean, kritikotasuna eta berdinatsean oinarritatutako ereduak irakurtzeko beharra ezinbestekoa da, are gehiago horrelako datuak esku artean izanda.

>12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	13	18	1	<ul style="list-style-type: none">BAIEZEZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	32	29	0	
GUZTIRA	45	47	1	


ESTEREOTIPOEN APURKETA

Aztertu ditugun aldagai konkretuetaz gain orokorrean esku artean izan dugun liburua estereotipoak apurtzen dituen ala ez jaso dugu atal honetan.

Protagonista edo bigarren mailako protagonisten izaera estereotipatua aipatu ditugu. Baina eta ineteresgarria zitzaigun orokorrean estereotipoak apurtzen zituzten liburuen portzentai orokorra azalaraztea, eta datua aztertutako **%19ean soilik apurtzen da ikuspuntua**.

Estereotipoak ez agertzeak ez duelako horiekin apurtzen dela esan nahi. Hau da neutratilatetik haratago ekintza apurtzaile positiboak edo eredu anitzak azaltzen zituzten libuak izan ditugu kontutan.

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA
EUSKARAZ	47	263	6
GAZTELERAZ	46	203	10
BESTELAKOAK	0	3	0
GUZTIRA	93	469	16



0-4 URTE SAILKAPENA


	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	6	52	0	<p>Legend:</p> <ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	1	12	0	
GUZTIRA	7	64	0	

Pertsonai estereotipatu gutxien topatu ditugun adin tarte izanik ere, estereotipoak apurtzen dituen portzentai txikiena topatu dugu baita ere;: %11.

5-7 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	15	81	0	<ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	8	16	0	
BESTELAKOAK	0	3	0	
GUZTIRA	23	100	0	

%23an estereotipoak apurtzen dituzten liburuak topatu ditugu. Horretarako idatziak izan diren “Arturo eta Klementina” “Oinutsik jauregian” printzesa baten jarrera ezberdina mahaigaineratzen, transexualitatea lantzeko “Mikel eta Mikaela” edo arestian aipatutako “Oliver Button poxpolin bat da” eta “Elmer”.



Aniztasuna lantzeko ez baina aniztasuna erakusten duten liburuak ere topatu ditugu “Hartz marmartia” non elkar zaintzaren beharra azpimarratzen den eta “Amona bizikletan” amona zaintzatik atera eta beste jardueretan topatzeko aukera izanik.



8-12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	15	57	0	<ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	11	45	0	
GUZTIRA	26	102	0	

%25,4 da estereotipoak apurtzen dituzten liburuen portzentaia. Hemen ere estereotipoak apurtzeko idatziak dauden liburuak topatu ditugu “Nik erremerre hitz egiten dut” liburua adibidez,

Beldurra ematea maite duen neskaren istorioa kontatzen duen “Von bat jaunaren desafioa” liburua edo “Ume desagertuaren kasua” topatu ditugu, non emakume heldua detektibe lanetan agertzen den.

Emakumeak taldean detektibe lanetan topatu ditugu, hala nola lan ez feminizatuetan, oso portzentai txikian bada ere.



>12 URTE SAILKAPENA


	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	5	27	0	<ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	8	53	0	
GUZTIRA	13	80	0	

Portzentaia adinarekin jeisten doa %16,25ra kasu honetan, pertsonaia estereotipatuak gorantz joan diren moduan.

Hala ere ekintza edo pertsonaia apurtzaileekin topatu gara. Amanda Black bezala, non emakume ausartak topatzen ditugun, adin ezberinetakoak gainera.

“La piedra angular” liburuan lan produktiboan emakume artzaiak, tabako fabrikako langile neska eta haur zaintzaile bezala topatzeaz gain, mozkorrak edo senarra uzten ageri dira baita ere.

GAIK SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	6	46	6	 <ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	18	77	10	
GUZTIRA	24	123	16	

%16an aputzen dira estereotipoak errealitatea azaltzeko erabiltzen diren liburuetan.

LAN ERREPRODUKTIBOA: ZAINTZA

Lan produktiboa eta lan erreproduktiboa teoria feministatik egin ohi den bereizketa da, lanaren zatiketa sexuala agerian jartzeko. Lan erreproduktiboa etxean, eremu pribatuan, egiten dena da, eta patriarkatuak eraginda emakumeek neurri handi batean burutu izan dutena. Lan produktiboa, berriz, ondasun eta zerbitzuak ekoizteko lana da eta historian zehar gizonei egotzitako egitekoa izan da.

Lan produktiboaren eta erreproduktiboaren arteko beste desberdintasun nabarmena horien truke jasotako konpentsazioa da. Lan produktiboak truke-balio bat duen bitartean, lan erreproduktiboak ez du truke-baliorik, eta diruz saritu gabekoa izanik desberdintasun ekonomikoa ezartzen du. Hau da, gizonaren eta emakumearen artean askatasun eta autonomia-desoreka sorrarazten du.

Areago, lan erreproduktiboa ez da lan gisa hartzen ere, ikusezina izaten da, eta horrek emakumeak lan munduan presentzia bikoitza izatera derrigortzen du: etxean egin behar du lana eta baita kanpoan ere.

Lan erreproduktiborik gabe baina, bizitza ez zen egun ezagutzen dugun modukoa izango. Bizitza guztiak bizigarri izan daitezzen ezinbesteko elementua behar du izan zaintzak. Pertsonak jaiotzen garen momentutik hiltzen gareneraino elkar-mendekoak gara, eta ondorioz, gure bizitza osoan zehar zaintza lanak eman eta jasotzea ezinbestekoa da.

Errealitate hau belaunaldi berriei ikusarazi behar zaie eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak agintzen duenez, etxeko lanarekin eta pertsonak zaintzearekin zerikusia duten egungo eta etorkizuneko behar eta erantzukizunez arduratzeko behar diren ezagutzak barneratzea ere bada hezkuntzaren helburuetako bat.

Egiteko horretan ipuinak bitarteko apartak izan daitezke, baina horretarako liburuek **zaintzak merezi duen garrantzia aitortu beharko lukete**. Eta hau ez da hala gertatzen, ipuin eta liburu askotan zaintzak ez du behar duen zentralitatea. Zaintza lanak agertu arren, oso gutxitan jartzen dira balioan.

Aipatu beharra dago gainera, protagonista normalean zainduaren paperean ageri dela, eta **oso gutxitan zaintzailearen paperean**. Haur eta gazteak ez dira apenas zaintzaile paperean kokatzen eta beraz, zaila dute euren burua praktika horretan irudikatzea.



Bestetik, zaintza eta etxeko lanak emakumeen gain jarraitzen dute maila handi batean eta liburuen bidez zabaltzen den iruditegian horrela mantentzen da. Aztertu ditugun 578 liburuetatik, 337tan emakumea ageri da zaintza lanetan. Hau da liburuen %58an.

Aldiz, gizonak aztertuko liburu guztietatik soilik 82tan agertzen da zaintza lanetan, hau da, %14an. Desoreka nabarmena da.

Emakumea zaintza lanetan ageri denean gainera gehien gehienetan **ama ala amona izaten da**.



Gainera, ikerketa guztian zehar ama eta amona horien jardunari buruzko kontakizunak anitzak dira. Zaintzeko edo lan erreproduktiboa egiteko gaitasuna aipatzen direnekoak:


“Jaionek gosaltzen bukatzerako, amak prestatu ditu ditu ogitartekoak eta txukundu du sukaldea. Batzuetan, zazpi beso dituela iruditzen zaio Jaioneri. Informatikariek bera hartu beharko lukete eredutzat robotak egiterakoan!” Elurraren formula. Bertol arrieta. 12 urtetik gora.

“Es admirable la facilidad y la rapidez con que las abuelas son capaces de dejar reluciente cualquier lugar. Sin embargo, a pesar de su velocidad supersónica en la ejecución de las labores del hogar, me ha llamado poderosamente la atención la cantidad de tiempo que han dedicado a hacer la microscópica cama del mono.” La fantástica chica invisible. Txabi Arnal. 8-12 urterik zuzendua.

Gizonezkoak ere zaintza lanetan edo lan erreproduktiboan agertzen dira batzuetan, baina aipagarria da, irudi askotan gizona sukaldean agertzen denean emakumea ere bertan dagoela.



EMAKUMEA			
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA
EUSKARAZ	179	131	6
GAZTELERAZ	156	93	10
BESTELAKOAK	2	1	0
GUZTIRA	337	225	16



- BAI
- EZ
- EZ ADIERAZGARRIA

GIZONA			
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA
EUSKARAZ	49	261	6
GAZTELERAZ	33	214	12
BESTELAKOAK	0	3	0
GUZTIRA	82	478	18



Adin tarte ezberdinei zuzendutako ipuinak aztertuz gero, baina, emakume eta gizonek zaintzan duten presentziaren arteko aldea ere ez da berdina.

Batetik, irakurleen adina gora doazen bitartean, emakumea eta zaintza lotzeko joera ere gora doa. Honakoa da emakumeek zaintza duten presentzia adin ziklo ezberdinetan: %52 0-4 urte adin tartean; % 58 5-7 urte adin tartean; %70 8-12 urte adin tartean eta %66 12 urtetik aurrera irakurleentzat direnetan.

Aldiz, gizonen presentzia zaintzan beherako joera hartzen du irakurleen adinean gora doazen liburuetan. Zehazki, honako datuak ditugu: %37 0-4 urte adin tartean; % 14,8 5-7 urte adin tartean; %13 8-12 urte adin tartean eta %12, 6 12 urtetik aurrera irakurleentzat direnetan.


0-4 URTE SAILKAPENA

EMAKUMEA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	32	26	0	
GAZTELERAZ	5	8	0	
GUZTIRA	37	34	0	

GIZONA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	13	45	0	
GAZTELERAZ	3	10	0	
GUZTIRA	16	55	0	

Bai euskaraz, zein gazteleraz emakumeak gailentzen dira zaintza lanetan. Gurasoak izan ohi dira zaintza lan horiek egiten dituztenak, bestela aitonak edo amonak. Oso eredu gutxitan ageri da anai-arreben arteko zaintza, familia zabala edo auzokideen arteko zaintza ematea.

Gurasoen arduretan banaketa ematen da ama eta aitaren artean eta euskaraz aztertutako liburuetan ama bakarrik agertzen diren kasuak 9 izan dira, hau da, aztertuetako liburuen % 13an, aitak aldiz 2 liburutan soilik, % 3an.



5-7 URTE SAILKAPENA

EMAKUMEA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	53	43	0	
GAZTELERAZ	16	8	0	
BESTELAKOAK	2	1	0	
GUZTIRA	71	52	0	

GIZONA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	15	81	0	
GAZTELERAZ	4	20	0	
BESTELAKOAK	0	3	0	
GUZTIRA	19	104	0	

Gizonak zaintza lanetan agertzen den liburu kopurua eta agertzen ez denarena arteko aldea bost aldiz txikiagoa da. Emakumeen presentzia zaintza lanetan aldiz handiagoa da zaintza lanetan agertzen ez denetan baino.



8-12 URTE SAILKAPENA

EMAKUMEA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	51	21	0	
GAZTELERAZ	38	18	0	
GUZTIRA	89	39	0	

GIZONA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	12	60	0	
GAZTELERAZ	5	51	0	
GUZTIRA	17	111	0	

Oso adierazgarriak dira adin honetan topatutako datuak. Emakumeak zaintzan topatzen ditugun liburuak zaintza topatzen ez ditugunen bikoitza baina gehiago dira. Aldiz **gizonezkoak zaintzan dauden liburuak ez dira %13 ra besterik iristen.**

Eredu positiboak ere aurkitu ditugu, Lur Gallastegiren “Uda bat Senegalen” liburuan aita da alaben zaintzaz arduratzen dena.





>12 URTE SAILKAPENA

EMAKUMEA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	20	12	0	<p>■ BAI ■ EZ</p>
GAZTELERAZ	41	20	0	
GUZTIRA	61	32	0	

GIZONA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	3	29	0	<p>■ BAI ■ EZ ■ EZ ADIERAZGARRIA</p>
GAZTELERAZ	8	51	2	
GUZTIRA	11	80	2	

GAIK SAILKAPENA

EMAKUMEA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	23	29	6	 <ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	56	39	10	
GUZTIRA	79	68	16	

GIZONA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	6	46	6	 <ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	13	82	10	
GUZTIRA	19	128	16	

Zaintza lanak emakumeari hertsiki lotuak ageri diren adibideak maiz aurkitu ditugu Gaiak sailkapen barruko liburuetan ere. Datuei erreparatuz, aztertutako 163 liburuetatik 79an ikusi dugu emakumea zaintza lanetan, hau da % 48ean. Gizonak aldiz, ikertutako 19 liburutan bakarrik aritzen ziren zaintzari lotutako lanetan, hau da %12an.

Horren adibide dugu ondoren txertatzen dugun argazkia, gaztelerazko “Disfruta haciendo disfraces” liburuaren parte dena, bertan, amantala bat nola egin erakusten dute. Amaieran, baina, haurrari zuzentzen zaionean “sorprende a mamá” jartzen du, erabat lotuz, amantala eta amaren figura.



LAN PRODUKTIBOA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen arabera, autonomia pertsonalaren eta independentzia ekonomikoaren ereduak eskaini behar ditu hezkuntzak. Eta bide horretan, aukera akademikoak generoan oinarritutako baldintzarik gabe aukeratzearen alde egin dadin exijitzen du.

Arestian aipatu bezala, ipuin eta liburuek berebiziko garrantzia dute iruditegia sortzeko orduan, irakurleak maiz irudikatzen baitu bere burua pertsonaia protagonistaren eskutik.

Haurtzaroan zehar osatzen goazen iruditegiak eragina du etorkizunean zer izan nahi dugun irudikatzean. Izan ere, nekez izango da neska bat astronauta inoiz emakume astronauta baten berririk izan ez duenean. Eta noski, honek guztiak gure aukera akademikoa baldintzatzen du, asko gainera.

Haur eta gazteei zuzendutako ipuinetan, **gizonak emakumeak baino gehiagotan ageri dira lan produktiboan**. Zehazki, aztertutako 578 ipuinetatik gizona 374tan agertzen da etxetik kanpo lanean eta emakumea aldiz, 224tan. Proporzioetara eramanez, **gizonak, %65an eta emakumeak %39an**

Emakumeei lan-ekintza mugatuagoa eskaintzen zaie, hala kopuruari dagokionez nola lanbide-motei dagokienez.

Irakasle, dendari, kazetari, haur zaintzailea, etxeko lanak egiten topatzen ditugu emakumeak. Liburu berdinean emakumeak lan bakarra eta gizonezkoak lan anitzetan agertzea ere maiz gertatzen da. “El amuleto mágico” liburuan kasu, non emakumeen lana sorgina eta zaintzailea den eta gizonak aldiz, arkeologo lanetan, dendari, dendako jabe, borroka askeko jokalaria profesionala edo museo zuzendari bezala agertzen zaizkigun. Ez da adibide bakarra, kuantitatiboki presentzia ere handiagoa da.




Ikusten denez, lan egiten agertu direnean gehientsuenetan irakasle edo dendari lanetan ageri dira bakarrik emakumeak. Hortaz, **emakumeak ez dira langile moduan islatzen eta hala agertzen direnean oso profesio feminizatueta ageri dira batik bat**.


Gizonezko pertsonaiak aldiz, oso lanbide ezberdinetan ikusi ditugu. Artzain lanean, banketxeko zuzendari, tren gidari, astronauta, alkate, banketxeko zuzendari, arbitro, entrenatzailea, polizia, txoferra, ingenieroa, ehiztaria, militarra,

Garrantzitsua da adin horietan emakumeak edozein profesio eta lanbidetan aritu ahal dutela nabarmentzea eta beraz, zentzu honetan iruditegi zabal bat eraikitzea.

EMAKUMEA			
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA
EUSKARAZ	94	215	7
GAZTELERAZ	129	120	10
BESTELAKOAK	1	2	0
GUZTIRA	224	337	17



GIZONA			
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA
EUSKARAZ	179	131	6
GAZTELERAZ	195	53	11
BESTELAKOAK	0	3	0
GUZTIRA	374	187	17




Emakumeak lan munduan duen ikusgarritasuna ezberdina da adin ziklo bakoitzean. Hala 0-4 urte bitarteko haurrei begirako ipuinetan, emakumea ez da apenas lan munduan ageri. Zehazki aztertutako 71 liburuetatik soilik 9 ipuinetan ageri da emakumea lanean. Hau da, soilik% 12,7an

Eta hurrengo adin zikloan, 5-7 urteko haurtxoei begira idatzitakotan 123tik 28tan aurkitu dugu emakumea lan munduan. Hau da, soilik %22,7an.


8 urtetik aurrerako ipuinetan egoera orekatzen doa, zenbakietan ez ordea lanbide motan.

“¡La misma! Respondió la mujer mirando a Jenny de arriba abajo.-¿De verdad pilota usted aviones? ... Pues si. Sólo me he estrellado una vez...a diferencia de mis colegas masculinos, que ya llevan tres dijo Jenny con viveza.”
El cementerio de los saurios. Thomas C. Brezina. 8-12 urterri zuzendua.


0-4 URTE SAILKAPENA


EMAKUMEA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	9	49	0	 ■ BAI ■ EZ
GAZTELERAZ	0	13	0	
GUZTIRA	9	62	0	




GIZONA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	14	44	0	 ■ BAI ■ EZ
GAZTELERAZ	1	12	0	
GUZTIRA	15	56	0	


5-7 URTE SAILKAPENA

EMAKUMEA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	20	76	0	
GAZTELERAZ	7	17	0	
BESTELAKOAK	1	2	0	
GUZTIRA	28	95	0	

GIZONA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	44	52	0	
GAZTELERAZ	13	11	0	
BESTELAKOAK	0	3	0	
GUZTIRA	57	66	0	



8-12 URTE SAILKAPENA

EMAKUMEA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	36	36	0	
GAZTELERAZ	36	20	0	
GUZTIRA	72	56	0	


GIZONA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	55	17	0	 <ul style="list-style-type: none"> ■ BAI ■ EZ ■ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	51	4	1	
GUZTIRA	106	21	1	

Emakumeak lanean agertzen diren 72 liburuetatik %32 an irakasle lanetan daude. Hau da 23 liburuetan.



Zenbaki berdinean emakumeak dendari edo sekretaria lanetan topatzen ditugu, beste 23etan. Gizonak ere irakasle lanetan agertzen dira % 14, 1ean, baina bereain lan aniztasuna askoz handiagoagoa da. Alkate emakumerik ez dugu topatu adibidez.

>12 URTE SAILKAPENA

EMAKUMEA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	14	17	1	 <ul style="list-style-type: none"> ■ BAI ■ EZ ■ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	38	23	0	
GUZTIRA	52	40	1	

GIZONA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	24	8	0	<ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	55	6	0	
GUZTIRA	79	14	0	

“Tristeak kontsolatzeko makina” liburuan argia da kualitatiboki arestian aipatatutako lanen ezaugarriak. Emakumeak sorgin lanean topatzen dugun moduan gizonak asmatzailea, bankuko langile, alkate, eta apaiza bezala agertzen zaizkigu.

GAIK SAILKAPENA

EMAKUMEA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	15	37	6	<ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	48	47	10	
GUZTIRA	63	84	16	

GIZONA				GRAFIKOA
	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	
EUSKARAZ	42	10	6	<ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	75	20	10	
GUZTIRA	117	30	16	


“El maravilloso mundo de los animales” liburuan, pertsona ezberdinak ageri dira lanbide ezberdinetan, horietatik bakar bat da emakumea eta liburuaren amaieran agertzen da, gainontzeko guztiak gizonetzkoak dira lan erremuneratu ekintzetan ageri direnak.

Bestalde, lanbideen feminizazio handiaren adierazgarri den beste adibide bat, “Enciclopedia del gato” deituriko liburua da, katuen inguruko liburu bat izanda ere, bertan ageri diren lanbideetan emakumeak ageri direnean, guztiz feminizatutako lanbideak dira eta.

ESPAZIOA

Zaintza lanek eragin zuzena dute **espazioan**. Protagonista eta pertsonaia maskulinoak agertoki oso bestelakotan ikusten ditugun bitartean, pertsonaia hauek emakumeak direnean eta zaintza lanei lotuta ageri direnean, gehienetan espazio pribatuan ikusten ditugu.

Datuei erreparatuz aztertutako liburuen %68an emakumeak eremu pribatuan ageri dira, eta espazio publikoan aldiz, %44ean.



Pertsonaia maskulinoek, berdin haurrek zein nagusiek, pertsonaia femeninoek baino espazio gehiago dute lan edo jolas egiteko. Leku edo agertoki gehiago izateaz gain, kualitatiboki ere ezberdinak dira hauek. Gizonak ageri diren espazioak, zabalago, irekiagoak eta sozialagoak dira; emakumeak agertzen diren agertokiak, ostera, txikiak, hertsia eta familia inguruarekin zerikusi dutenak izan ohi dira.

Gainera emakumeak “orojakile” moduan agertzen zaizkigu, espazio pribatuaren kontrola daramanatela aipatzen da maiz:

”Bestelako batean, amak sumatuko zidan atsekabea, amak, sorgin bat balitz bezala, beti sumatzen baitu zer gertatzen zaidan. Egun batean aditu nion Kattalini amak zernahi gauza egiteko eta zernahi problema zuzuentzeko gai zela. Alabaina, guraoek ere afaria zuten lagunekin, eta ziztuan abiatu zen apaintzera. Aitak beti bezala, liburu bat hartu zuen.” Baloika, Aingeru ezpaltza. 5.7 urtekoei zuzenduta.


Publiko eta pribatuaren arteko dikotomia beraz, agerikoa da ere ipuin eta liburuetan.

Muturreko adibidea topatu dugu Susaeta editorialaren, euskarazko “Umeentzat 365 txiste” liburuan. Portadatik hasi, non emakume bat ere ez den ageri; barruko irudi eta “txiste” en estereotipo maila altuetaraino. Emakumea 114 txistetan agertzen da, hau da, txisteen %31an, eta emakumea espazio pribatuan 61 aldiz kokatzen dute. Emakumeak agertzen diren txiste kopuruen %53an, etxe barruan agertzen da, eta etxe barruan ez bada, zaintza lanetan agertzen da dentistarenera semea eramanez adibidez.



EMAKUMEA ESPAZIO PRIBATUAN

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA
EUSKARAZ	165	93	0
GAZTELERAZ	115	39	0
BESTELAKOAK	1	2	0
GUZTIRA	280	132	0



0-4 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	28	30	0	<p> ■ BAI ■ EZ ■ EZ ADIERAZGARRIA </p>
GAZTELERAZ	6	7	0	
GUZTIRA	34	37	0	


5-7 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	56	40	0	<p> ■ BAI ■ EZ ■ EZ ADIERAZGARRIA </p>
GAZTELERAZ	17	7	0	
GUZTIRA	74	49	0	

8-12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	56	16	0	<p> ■ BAI ■ EZ ■ EZ ADIERAZGARRIA </p>
GAZTELERAZ	45	11	0	
GUZTIRA	101	27	0	


>12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	25	7	0	 <ul style="list-style-type: none">BAIEZEZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	47	14	0	
GUZTIRA	72	21	0	

EMAKUMEA ESPAZIO PUBLIKOAN

Emakumea espazio publikoan hitzez edo irudiz zenbatetan agertzen den zenbakitu dugu atal honetan. Emakumea espazio publikoan **agertzen ez diren liburu kopurua agertzen direnetan baino gehiago delarik.**

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA
EUSKARAZ	92	164	2
GAZTELERAZ	88	66	0
BESTELAKOAK	0	3	0
GUZTIRA	180	233	2



0-4 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	12	46	0	<p>Legend:</p> <ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	3	10	0	
GUZTIRA	15	56	0	

5-7 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	36	60	0	<p>Legend:</p> <ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	14	10	0	
BESTELAKOAK	0	3	0	
GUZTIRA	50	73	0	

8-12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	29	42	1	<ul style="list-style-type: none"> ■ BAI ■ EZ ■ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	33	23	0	
GUZTIRA	62	65	1	

>12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	15	16	1	<ul style="list-style-type: none"> ■ BAI ■ EZ ■ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	38	23	0	
GUZTIRA	53	39	1	

FAMILIA EGOERA


Familia eredu tradizionala gailentzen da ikertutako liburuetan. Ama, aita eta seme-alabek osatzen duten familia nuklearra esaterako. Zehazki, familia ereduren bat agertzen den aztertutako 385 liburuetatik 261ean erakusten den eredu familia tradizionala da. Hau da %68a.

Gurasoetako bat soilik agertzen diren liburuak ere zerrendatu ditugu eta ama bakarrik 53 liburutan ageri da eta aita bakarrik 16tan. Ama edo aita bakarra aurkitzea beraz, zaila da.

Ikertutako ipuinetan aiton amonek garrantzia dute eta maiz agertzen dira, baina oso gutxi dira bi ama edo bi aitaz osatutako familiak agertzen dituzten ipuinak.

Aztertutako 578 tatik soilik 39 aurkitu dugu familia eredu **anitza**, hau da aztertutako **%10an**, eta batez ere helduagoen liburuetan, non gurasoak bananduak agertzen diren maiz.

	TRADIZIONALA	ANITZA	EZ DA AGERI	AMA BAKARRIK	AITA BAKARRIK	EZ ADIERAZGARRIA
EUSKARAZ	138	14	111	36	10	7
GAZTELERAZ	122	25	81	16	6	9
BESTELAKOAK	1	0	1	1	0	0
GUZTIRA	261	39	193	53	16	16



- TRADIZIONALA
- ANITZA
- EZ DA AGERI
- AMA BAKARRIK
- AITA BAKARRIK
- EZ ADIERAZGARRIA

Familia tradizionalaren presentzia gainera, gora doa irakurleen adinean gora doazen liburutan. 0-4 urte bitarteko umeei zuzendutako ipuinetan, familia nukleo gisa ez da apenas ageri. Aztertutako 71 ipuinetatik 36an ez da agertzen, beraz ia erdian.

0-4 URTE SAILKAPENA

	TRADIZIONALA	ANITZA	EZ DA AGERI	AMA BAKARRIK	AITA BAKARRIK	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	17	1	28	9	2	1	<ul style="list-style-type: none"> ■ TRADIZIONALA ■ ANITZA ■ EZ DA AGERI ■ AMA BAKARRIK ■ AITA BAKARRIK ■ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	2	0	8	2	1	0	
GUZTIRA	19	1	36	11	3	1	

5-7 URTE SAILKAPENA

	TRADIZIONALA	ANITZA	EZ DA AGERI	AMA BAKARRIK	AITA BAKARRIK	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	35	5	36	17	3	0	<ul style="list-style-type: none"> ■ TRADIZIONALA ■ ANITZA ■ EZ DA AGERI ■ AMA BAKARRIK ■ AITA BAKARRIK ■ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	7	0	10	5	2	0	
BESTELAKOAK	1	0	1	1	0	0	
GUZTIRA	43	5	47	23	5	0	


8-12 URTE SAILKAPENA

	TRADIZIONALA	ANITZA	EZ DA AGERI	AMA BAKARRIK	AITA BAKARRIK	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	39	3	18	8	4	0	<ul style="list-style-type: none"> ■ TRADIZIONALA ■ ANITZA ■ EZ DA AGERI ■ AMA BAKARRIK ■ AITA BAKARRIK ■ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	28	9	11	6	2	0	
GUZTIRA	67	12	29	14	6	0	

>12 URTE SAILKAPENA

	TRADIZIONALA	ANITZA	EZ DA AGERI	AMA BAKARRIK	AITA BAKARRIK	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	18	3	8	2	1	0	<ul style="list-style-type: none"> ■ TRADIZIONALA ■ ANITZA ■ EZ DA AGERI ■ AMA BAKARRIK ■ AITA BAKARRIK ■ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	31	10	16	3	1	0	
GUZTIRA	49	13	24	5	2	0	

GAIAK SAILKAPENA

	TRADIZION ALA	ANITZA	EZ DA AGERI	AMA BAKARRIK	AITA BAKARRIK	EZ ADIERAZG ARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	29	2	21	0	0	6	 <ul style="list-style-type: none"> ■ TRADIZIO- NALA ■ ANITZA ■ EZ DA AGERI
GAZTELERAZ	54	6	36	0	0	9	
GUZTIRA	83	8	57	0	0	15	

Eredu positibo gisa, “Fantástico cuerpo humano” liburuan ageri den familia eredu anitzaren errepresentazioa azaltzen da jarraian.




JATORRI ANIZTASUNA

Arrazializatutako pertsonaia zein beste kulturetatik datozen protagonisten presentzia oso txikia da oraindik ere haur eta gazte literaturan. Are gehiago lehen mailako protagonistei erreparatuz gero. Guk aztertutako 578 liburuetatik 144 ipuinetan ageri da bakarrik eredu hegemonikoa ez den pertsonaien bat. Hau da %25, an. Arrazializazioa eta kultura ezberdinak azaltzen dituzten egoerak beraz, oso, oso mugatuak dira. Aztertutako liburuetan topatu ditugun pertsonaia kopuru guztietik ateratako datuak dira hauek, eta oso adierazgarria da 0-4 eta 5-7 kategorietan arrazializatutako pertsonen ausentzia.

Familia egoera anitzekin gertatzen den bezala, aniztasuna lantzen duten liburu zehatzak egon badaude “Salimarentzat oparia” liburua bezalakoa adibidez. Hauetan, baina, aniztasuna da gai nagusia, kultura aniztasuna ez da normaltasunean, zehar lerro gisa kokatzen den testuinguru moduan agertzen.

Kontutan izan behar da ere Euskal Herrietik kanpo gertatzen diren historioak ere kontutan hartu ditugula zenbaketan.

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA
EUSKARAZ	63	244	9
GAZTELERAZ	81	169	9
BESTELAKOAK	0	3	0
GUZTIRA	144	416	18




0-4 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	3	55	0	<p>Legend:</p> <ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	2	11	0	
GUZTIRA	5	66	0	

Animalien gora beherak dira adin tarte honetan nagusi; animaliak genero rolei edo sexu bati erantzuten diote eta ez jatorri aniztasunari.

Animalia ezberdinak topatu ditzazkegu baina agertzen diren pertsonen gehiengoak ez diote aniztasunari erantzuten, euskarazko liburuen datuei erreparatuz gero, aztertutako liburuetatik, soilik %5an agertzen da jatorri ezberdineko pertsonai bat.

Gaztelera animaliak protagonista diren istorio gutxiago topatu ditugu eta pertsona gehiago, baina %15ean soilik agertzen da jatorri ezberdineko norbait. Gainera bi liburu horietatik bakarrean du protagonismoa pertsona arrazalitzatuak, “Sirenas” tituloa daraman liburuan kasu.



“¿Cómo curar una ala rota?” liburuaren kasuan kultur adierazpen ezberdina topatzen ahal dugu kalean paseatzen zegoen jendearen artean, protagonismorik gabe.

5-7 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	15	80	1	<ul style="list-style-type: none"> ■ BAI ■ EZ ■ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	6	18	0	
BESTELAKOAK	0	3	0	
GUZTIRA	21	101	1	

Aniztasunaren presentzia gora doa adinean gora joan ahala, baina, euskarazko liburuetan %16 an agertzen da eta gaztelera %25era igotzen da soilik. Portzentaietaz haratago aipagarria da adin honetan beste kulturetara gerturatzeko topatzen ditugun moduak. “Joxean eta Teilak” liburuan adibidez euskaldun bat ameriketara doa eta bertakoekin gertatzen zaizkionak azaltzen ditu, “Max eta Mia” eskimalen lurraldean gertatzen den bezala.

8-12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	29	42	1	<ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	18	38	0	
GUZTIRA	47	80	1	

Aniztasun portzentai handiena duen adin tartea da hau, talde protagonismo handiak egotea lagundu du honetan ere.

Aipatu bezala taldean agertzen direnean, jatorri anitza duen pertsonaia aurkitu dugu maiz, edo taldean ez baina gertuko bigarren mailako protagonisten artean “Nur” kolekzioan edo “El Club de Tea”-n gertatzen den bezala.

>12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	5	27	0	<ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	22	39	0	
GUZTIRA	27	66	0	

Portzentaiak behera doaz berriz, baina ez da orokorrean bezain baxua. Beste kulturetara gerturatzen diren komikiak lagungarriak dira adin tarte honetan, baina horretaz gain, “Gatazka gela” liburuan adibidez, jatorri asiaticoa duen eta arabiar kulturako familian bizi den neska biren deskribapena topatu dezakegu.

GAIK SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	11	40	7	<ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	33	63	9	
GUZTIRA	44	103	16	

ANIZTASUN FUNTZIONALA


Aniztasun funtzionala duten pertsonaien presentzia oso eskasa da haur eta gazte literaturan. Ipuinetan ageri diren protagonistak ez dute apenas traba eta oztoporik. Irudietan ez dira gupil aulkiak ageri, ez eta betaurreko edo ahoko aparatuek. Gure eskola eta kaleetan ohikoak diren ezaugarriak ez daude presente, eta are gutxiago aniztasun funtzionala bere orokortasunean. Guk aztertutako 578 liburuetatik 27 ipuinetan ageri da bakarrik eredu hegemonikoa ez den pertsonaien bat. **Hau da %5an.**

Adierazgarria da gainera horietatik 12 Gaiak atalean topatu ditugula, hau da istorioetan aniztasun funtzionala agertzen direnekoen kopurua **%2,5era jeisten da.**

Ez dugu , haur trisomikorik topatu, edo bestelako aniztasuna duen protagonistarik, kasu batean izan ezik “Super sorda”, benetazko istorio batean oinarritua dagoen komikia.

Aniztasuna oso tarteka, modu sutilean eta batik bat irudien bitartez agertu izan zaigu, zaindua behar duen pertsona helduaren kasuan irudikatua gehienetan.

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA
EUSKARAZ	4	301	9
GAZTELERAZ	23	226	10
BESTELAKOAK	0	3	0
GUZTIRA	27	531	19



0-4 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	1	57	0	<p>A pie chart illustrating the distribution of responses for '0-4 URTE SAILKAPENA'. The chart is divided into three segments: a large yellow segment representing 'EZ' (No), a very small pink segment representing 'BAI' (Yes), and a very small green segment representing 'EZ ADIERAZGARRIA' (No response). A legend to the right of the chart identifies the colors: pink for BAI, yellow for EZ, and green for EZ ADIERAZGARRIA.</p>
GAZTELERAZ	1	12	0	
GUZTIRA	2	69	0	

Aztertutako bi liburuetan soilik agertzen dira protagonismoa gabe, aniztasun funtzionala adierazteko irudiak:



5-7 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	2	93	0	<ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	0	24	0	
BESTELAKOAK	0	3	0	
GUZTIRA	2	120	0	

120 liburu aztertuetatik soilik bi liburuetan topatu dugu aniztasun funtzionala. Emakumerik agertzen ez den “Afrikako zuhaitz txikia” liburuan totalka mintzatzeko animalia aipatzen da eta “Andere zikoinak” liburuan istripu baten ondorioz elkar lagunduz hegan egin behar duten zikoinen istorioa kontatzen da.

8-12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	0	69	3	<ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	7	48	1	
GUZTIRA	7	117	4	

Euskarazko liburuetan ez dugu aniztasunik topatu; gazteleraezkoan “Los niños de cristal” liburuan, etxe sorginduan arestian gaixotasun hori zuten haurren babeslekua dela eta gaitzaren azalpenak azaltzen dira; baina protagonismo gaurkoturik gabe.


Hitza ez duten hurrengo pertsonaiak topatu ditugu ere; “El libro de la suerte” liburuan itsu bat loteria saltzaille bezala agertzen zaigu, “La niña de rojo” liburuan gorpil-aulkian eta azkenik, “El columpio de madame Brochet” liburuan makuluarekin ibiltzen den protagonista.




>12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	0	32	0	<ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	5	56	0	
GUZTIRA	5	88	0	

Sarreran aipatu bezala “Super Sorda” dugu aniztasun funtzionala duten eta protagonista diren liburu bakarrenetarikoa, animalia sexualizatu gisa agertzen da protagonista eta gorra geratzearen inguruko gogoetak egiten ditu bere bizitzako pasarteak kontatuz komiki formatuan. Gai nagusia hori delarik, bere gorreria.



GAIAK SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	2	50	6	 <ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	10	86	9	
GUZTIRA	12	136	15	

ANIZTASUN SEXUALA

12 urtetik aurrerako gazteei zuzendutako eta aztertutako 71 liburuetatik, soilik 5etan aurkitu dugu **aniztasun sexualaren presentzia, hau da, %5an.**


Aipagarria da baina emakumeen arteko erlazioetaz mintzatzen direla aztertutako hiruetan “El diario de Meri: tengo un secreto” “Maitasuna besterik ez”, edo eta Alaine Agirreren “Libe” liburuetan protagonista bezala. Hiruetan, sentimenduak edo homosexualitatea da ildo nagusietakoa.

“Blue Period” kominiki japoniarrean neskaz jantzita bizi den mutila agertzen da, eta “Atearen atzean” liburuan irakasle gizonezkoa homosexula dela aipatzen da.

Txikiagoentzat zuzendutako liburuetan ere, jatorri aniztasuna atalean aipatutako “Sirenas” liburua daukagu baita eta “Mikel eta Mikaela” liburuan bi mutil protagonisten aniztasuna azaltzen da.

Hala eta guztiz ere presentzia oso eskasa dela esan daiteke.

>12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	3	29	0	 <ul style="list-style-type: none">BAIEZEZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	2	56	3	
GUZTIRA	5	85	3	

“¡Oye no pongas esa cara! Que no es ninguna enfermedad contagiosa-Fred cerró la puerta tras ellos-.A mí también me gustan más las chicas que los chicos. Podría decirse que Wilma y yo tenemos en mismo gusto.” Las gallinas locas y el amor. Cornelia Funke. 8-12 urtekoei zuzendua.

MAITASUN ERROMANTIKOA



Maitasuna eta sentimenduak edo giza erlazioen ardura nesken kontua direla ondoriozta dezake ikerketak. Etxekoen arduratik hasi eta berdinaren arteko erlazioetaraino. Sentimenduetaz mintzatzen direnak edo maitekero agertzen direnak orokorrean emakumeak dira, batik bat txikienen liburuetan:



Adinean gora joan ahala ere nesken kontua dela ulertzen da liburu batzuetan:

“El sustituto es más joven, pero creo que piensa que todas las niñas tenemos que estar enamoradas de él. Bueno, eso son cosas de chicas y tú no quieres saberlas, lo sé” Raúl y la Luz azul. Pedro Ramos. 8-12 urterkoei zuzendua.

Printze urdina noizbait aurkitu eta gerora harekin bizimodu zoriontsua lortuko dutela amestera animatzen dituzten liburuak ez ditugu horrenbeste topatu, nahiz eta oraindik ere horrelakoak irakurri topatu ditugun:

“hace trescientos años, el colgante pertenecía a una bruja llamada Anaglypita, la cual se enamoró de un hombre cualquiera y renunció a la magia para casarse con él, ya que a él no le gustaban las brujas...el poder mágico del ojo se desvanecería por completo con un beso nacido del amor verdadero.” El amuleto mágico. Brunelia Patt. 8-12 urterri zuzendua.

Era honetako ipuin eta istorioak alabaina, neskatoei zuzenduak izaten dira batik bat eta hortaz, positibotzat jotzen diren balio horiekin eraikitzen doaz etorkizuneko bidelagunen irudi idealizatuak. Norberaren iruditegian sortutako irudi idealizatu hauek, harreman sano eta orekatuak izatea oztopatzen dute maiz, etorkizuneko harremanak kolokan jarriz.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea berdintasunean oinarritutako hezkuntza afektibo eta sexuala irakastearen alde ageri da eta halako kontakizunek ez dute ekarpen gehiegi egiten bide honetan. Beraz, maitasun erromantikoaren mitoa berrikusi eta harreman eredu berdintzale, berri eta anitzak eskaini behar ditugu ipuin eta liburuen bidez.

“El equipo tigre encuentra una carta de amor que parece muy vieja...Biggi se emociona mucho al leer esas románticas palabras ...sin embargo Luk sonrie con cara de guasa.” El cementerio de los saurios.Thomas C. Brezina. 8-12 urterri zuzendua.

Maitasun erromantikoaren mitoak dakartzan arriskuak handiak dira. Neskak maitasun honen izenean amore ematera animatzen ditugu maiz, zenbait jarrera desegoki onartuz eta jasatera gonbidatuz. Jeloskortasuna amodioaren seinale gisa identifikatzea edota bikote kidearen gaineko kontrola onartzeaz ari gara, adibidez; baina baita indarkeria matxista gogorragoaz ere.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak alabaina, emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko eginkizuna ezartzen dio Hezkuntzari, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta aniztasunean eta emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasunean oinarritutako bizikidetzareduak irakastera gonbidatuz.

Datuak aztertuz baina, maitasun erromantikoa agertzen den liburuak ez direla hainbestekoa izan azpimarratzekoa da, soilik %8,5ean dagoela ikusi bait dugu.


Maitasunaz, adinean gora hitz egiten da, eta batez ere 12 urtetik gorakoan liburuetan topatu dugu; maitasun erromantiko tradizionala gainera, adin tarte horretan agertu den 20 liburuetatuk 16etan neskak protagonistak dira, hau da %80an.

Besteetan ere “Los escarabajos vuelan al atardecer” liburuan kasu, neska da maitasunarekiko interesa agertzen duen protagonista naiz eta mutila protagonista nagusia izan.

Aipagarria da ere bai soilik sentimenduetaz edo maitasunaz hitz egiten den liburuetan naiz eta maitasun erromantiko tradizionala bere definizioan ez sartu, neskak direla elkarrizketa horien protagonistak orokorrean.

Horren adibide “Segundo verano en vaqueros” liburua daukagu, liburu guztia erlazioen ingurukoa da, ama eta bere alabak dira protagonistak. “El olor a las casas de los demás” liburuan ere maitasuna da liburuaren ardatz; edo “El diario de Meri: tengo un secreto” liburua, non maitasunaz soilik hitz egiten den, emakumeen arteko maitasuna baina erromantikoa eta oso dependientea azaltzen duena.

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA
EUSKARAZ	20	290	6
GAZTELERAZ	30	220	9
BESTELAKOAK	0	3	0
GUZTIRA	50	513	15



0-4 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	1	57	0	<p>Legend:</p> <ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	1	12	0	
GUZTIRA	2	69	0	

5-7 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	5	91	0	<p>Legend:</p> <ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	3	21	0	
BESTELAKOAK	0	3	0	
GUZTIRA	8	115	0	

8-12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	4	68	0	<p>Legend:</p> <ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	9	47	0	
GUZTIRA	13	115	0	

>12 URTE SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	7	25	0	<ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	13	48	0	
GUZTIRA	20	73	0	

GAIAK SAILKAPENA

	BAI	EZ	EZ ADIERAZGARRIA	GRAFIKOA
EUSKARAZ	3	49	6	<ul style="list-style-type: none"> BAI EZ EZ ADIERAZGARRIA
GAZTELERAZ	4	92	9	
GUZTIRA	7	141	15	

KOMIKIETAN EMAKUMEEN AUSENTZIA



Ez genuen aldagai bezala aurreikusi baina aipagarria da emakumearen presentzia eskasa aztertutako komikietan. 12 urtetik aurrerako atalean topatu ditugu komiki gehienetan, aztertutako 26 liburuetatik zotan gizona da protagonista, hau da, %77an.

Emakume bakar bat ere agertzen ez diren komikiak topatu ditugu ere: Arestian aipatutako “Asterix eta Obelix Galiarako itzulian” edo Lucky Luken “Remontando el mississippi”-ri, Mortadelo eta Filemonen “El caso del bacalao” gehitu behar diogu,

Edota bere presentzia bineta para batean agertzera mugatzen direnak ere. Son Gokuren “Las aventuras de Spirou y Fantasio” komikiko 252 orrialdeetan zehar, 4 istorioen konpilazioan emakumeak 3 binetetan agertzen direla soilik. Tintin-en “Las siete bolas de cristal” liburuan ere emakumeak ez dute protagonismorik.

Zipi eta Zaperen “El gran safari” edo “La familia churunbelen” amak zaintza lanetan ikusi ditzazkegu oso rol estereotipatuetan gainera.



Estereotipoekin jarraituz, komiki japoniarretan gizonak borrokan agertzen zaizkigu, Son Goku edo Naruto pertsonaiekin, komiki osoan zehar soilik borrokan jarduten direla ikus dezakegularik, non emakumeen parera ikusle izatera mugatzen den soilik.



Baina indarkeria edo borrokak ez ditugu hemen soilik topatu “El capitan trueno” beste adibide argia da.



3. ONDORIOAK

Berdintasunean, autonomian, dibertsitatean, errespetuan eta askatasunean oinarritutako hezkuntza sustatzeko eta noski, balio horien gaineko hezkuntza euskaraz sustatu ahal izateko, ezinbestekoa da genero ikuspegia txertatzeko ahaleginak egiten jarraitzea. Eta bide horretan, gazte eta haur literaturan arreta jartzea ezinbestekoa da. Ikerketak argi erakutsi du, **berdintasunaren helmugarantz geratzen zaigun bidea luzea dela oraindik.**

Oiartzungo herri liburutegian egindako ikerketa eta bertatik ateratako emaitzak, bestelako liburutegietan aurki dezakegun errealitatearen ispilu izan daitekeela uste dugu. Are gehiago, euskal liburuaren ekoizpenaren eta itzulpen gintzaren adierazle ere badela uste dugu.

IDAZLEAK ETA ILUSTRATZAILEAK

Idazleei eta ilustratzaileei erreparatuz gero, Oiartzungo liburutegian aztertutako **liburuaren %36a, emakumeek idatzi dituzte eta %31a emakumeek ilustratuak dira.**

Hala eta guztiz ere, aldea nabarmena da adin tarte ezberdinei zuzendutako ipuinak aztertuz gero. Hala 0-4 adin tartean, emakume ilustratzaileak eta idazleak gehiago dira gizonak baino, izan ere, ikertutako ipuinen %55an emakumeak dira ilustratzaile lanetan ari direnak, eta %53,5an emakume idazleak dira.

Adin tartetan gora egin heinean, baina, nagusitasun hori aldatu eta beherako joera hartzen du. 12 urtetik gora haurrei zuzendutako ipuinetan adibidez, %36,5 dira emakumezko idazleak eta %19 emakumezko ilustratzaileak.

Bereziki kezagarria da gai zehatzak lantzen dituzten liburu, atlas edo entziklopedietan dagoen emakume idazle eta ilustratzaileen eskasia. Bertan aztertutako 163 liburuetatik soilik 41 dira emakumeek idatzia. Hau da, %25a. Ipuinen atzean geroz eta emakume gehiago dauden arren, ez da berdina gertatzen errealitatearen kontagintza xede duen literaturan.

Beraz, datuek agertzen duten bezala, **badira emakume idazle eta ilustratzaileek bere egiten ez dituzten eremuak.**

Arestian aipatu bezala, geroz eta emakume gehiago dira idazle lanetan eta beraz, arrakala hori mehetzen ari dela ondoriozta daiteke. Hala eta guztiz ere, datuek agertzen duten bezala, badira emakume idazleek bere egiten ez dituzten eremuak, gaiak azaltzen dituzten liburuak adibidez. Irakurleen adinean gora doazen liburuetan emakume idazleen presentziak beherako joera hartzen duela ere aintzat hartu behar da.

Ume txiki txikiei begira diseinatutako ipuinetan emakume idazle eta ilustratzaileak egon badirela ondoriozta daiteke, haatik ez hainbeste nerabe eta haur helduxeagoi begira ekoiztutakoetan. Garrantzitsua da ume eta gazteei eskaintzen dizkiegun liburuetan emakume idazle eta ilustratzaileak agertzea, izan ere, neskatoak

euren etorkizuna hautatzerako orduan aukera profesional horiek aukera bideragarriak direla ondorioztatu dezake horrela.

Hauek dira egoera azaltzen dituzten datuak. Errealitatearen isla besterik ez dira, baina liburutegia egunero berritzeko ahalegin horretan emakumezko idazleengan atentzioa ipini eta aukera bat ematen ez badiegu arrakala hori iraunarazteko arriskuan gara.

PROTAGONISTA

Oiartzungo liburutegian diren liburuetan emakume zein gizonek duten presentzia eta protagonismoa aztertu dugu. Eta datuek argi erakusten dute pertsonaia maskulinoen kopurua femeninoena baino handiagoa dela. Zehazki, aztertutako 578 liburuetatik 311 ipuinetan **gizonak dira protagonista nagusia**. Hau da, ipuinen **%54an**. Emakumeak aldiz 128 ipuinetan aurkitu ditugu protagonista lanetan, hau da **%22an**.

Azpimagarria da ere gizon eta emakumeen inguruko euskaldunen biografietan oinarritutako ipuinen arrakala, emakumeak historian izan duten presentzia ikustezina bilakatuz.

Irakurtzen ditugun ipuinetan edo ikusten ditugun filmetan gure burua irudikatu eta imajinatzen dugu. Ipuinek berebiziko garrantzia dute sozializazio prozesuan. Umeak liburuetan aurkitzen ditugun pertsonaiekin identifikatzen dira eta entzun eta irakurtzen dituzten istorioen protagonista bihurtzen dira maila batean. Pertsonaiari gertatzen zaion guztia bere barruan bizi du umeak, eta pertsonaiak hartutako erabakien inguruan hausnartuz, gatazken aurrean nola jokatu ikasten joango da umea.

ANIZTASUNAREN PRESENTZIA

Garrantzitsua da pertsonaiek aniztasuna erakustea. Bai generoari erreparatuz arestian aipatu dugun gisara, baina baita kultur aniztasuna, aniztasu funtzioanala edota sexu aniztasunari dagokionez ere.

Kultur aniztasuna adibidez, aztertutako 578 liburuetatik 144 ipuinetan ageri da bakarrik. Hau da **liburuen %25 an soilik topatu dugu zuria ez den pertsonaien bat eta protagonismo urriarekin gainera**.

Aniztasun funtzionala duten pertsonaien presentzia eskasagoa da oraindik haur eta gazte literaturan. Guk aztertutako 578 liburuetatik 29 ipuinetan ageri da bakarrik aniztasun funtzionala. Hau da **%5an**.

Aniztasun sexuala ere urria da haur eta gazte literaturan. 12 urtetik aurrerako gazteei zuzendutako eta aztertutako 71 liburuetatik, soilik 5ean aurkitu dugu **aniztasun sexualaren presentzia, hau da, %5an**.

Aniztasunaz ari garela, familia erduei ere erreparatu diegu. Familia eredu tradizionala gailentzen da ikertutako liburuetan. Ama, aita eta seme-alabek osatzen duten familia nuklearra. Zehazki, familia ereduren bat agertzen den aztertutako 385 liburuetatik 261ean erakusten den erdua **familia tradizionala** da. Hau da **%68a**.

Askotan baina, halako liburuak gaia modu zehatzean jorratzeko pentsatuak eta diseinatuak daude eta oraindik gutxi dira, familia eredu aniztasuna zeharka lantzen dutenak.

ESTEREOTIPOAK

Gizarteko beste esparru ezberdinetan bezala, tamalez estereotipoak eta rolak oso presente daude haur eta gazte literaturan. Ipuinetan agertzen diren pertsonaiak estereotipatuak izaten dira. Bai protagonista nagusiak eta baita bigarren mailako protagonistak ere.

Datuei erreparatuz, 0 eta 16 urte bitarteko haurrei zuzendutako 415 ipuinetan jarri dugu lupa eta haietako 279 aletan, hau da **%67an, pertsonaia protagonista modu estereotipatuan** ageri dela frogatu dugu. Bigarren mailako protagonistak are estereotipatuagoak agertzen dira; zehazki, 415 ipuinetatik 297tan aurkitu ditugu, hau da %72an.

0 eta 4 urte bitarteko umeei zuzendutako ipuinetan idazle eta ilustratzaileak tentuz edo behintzat zorrotzago aritzen direla ikusi dugu. Izan ere, adin tarte horri begira aztertutako 71 ipuinetan 39 pertsonaia ez estereotipatu ikusi ditugu eta. Hau da, 0-4 urte dituzten haurrei zuzendutako ipuinetan pertsonaia ez estereotipatuaren presentzia %55koa da.

Adin tarte honetan emakume idazleen eta ilustratzaileen ekarpena handiagoa da. Arestian esan bezala, 0-4 adin tartean emakume ilustratzaileak eta idazleak gehiago dira gizonak baino. Portzentaietan %55an dira emakume ilustratzaileak, eta %53an emakume idazleak. Akaso emakume egileen presentzi honek zerikusia izan dezake estereotipoetatik salbu dauden pertsonai hauen sorreran.

Tamalez, irakurleen adinean gora doazen liburuetan, estereotipoen presentzia ere gora doa. Honakoa da pertsonaia protagonista estereotipatuaren presentzia adin ziklo ezberdinetan: %63 5-7 adin tartean; %76,8 8-12 adin tartean eta %78,5 12 urtetik aurrerako irakurleentzat direnetan.

Estereotipo eta rolak esparru eta espazio askotan ikusi daitezke. Hala nola, pertsonaien ekintzetan, Mutil protagonistek mugimendu handiagoa agertzen dute, neskak egoera lasaiagoetan ageri diren bitartean.

Esanguratsuak dira ere deskripzio eta ilustrazioetan aurkitzen diren estereotipoak. Neska gazteak agertzeko orduan emakumeen edertasunari neurri kanpoko garrantzia eman ohi zaio. Gainera, irudikatzen diren neskato taldeetan itxura fisikoa aintzat hartuz ez dago apenas aniztasunik. Emakumearen errepresentazio sexualizatua ere aurkitzen dugu irudietan.

Bestetik, adin batetik aurrerako emakumeak irudikatzerakoan, batez ere **ama paperean ageri direnean, zaintza lanekin lotzeko ohitura erabat zabalduta dago ipuinetan**. Amantalak jantzita eta garbitasunarekin, txukuntasunaren eta familiakoen beharraz asetzen topatu ditugu eta bigarren mailako protagonistetan ere maiz emakume pipertuak agertzen dira. Gizonak, aldiz, nahiz eta gutxiago agertu, figura interesgarriago gisa dira irudikatuak, zaletasunekin eta umore onekoak.

LAN ERREPRODUKTIBO ETA PRODUKTIBOA

Lan produktiboa eta lan erreproduktiboak lanaren zatiketa sexuala agerian jartzen du. Lan erreproduktiboa etxean, eremu pribatuan, egiten dena da. Lan produktiboa, berriz, ondasun eta zerbitzuak ekoizteko lana da eta historian zehar gizonei egotzitako egitekoa izan da.

Haur eta gazte literaturan, lan erreproduktiboa emakumeen gain jarraitzen du maila handi batean eta liburuen bidez zabaltzen den iruditegian horrela mantentzen da. Aztertu ditugun 578 liburuetatik, 337tan emakumea ageri da zaintza lanetan. Hau da liburuen %58an. Aldiz, gizonak aztertutako liburu guztietatik soilik 82tan agertzen dira zaintza lanetan, hau da, %14an. Desoreka nabar nabarmena da.

Beste aldean, **gizonak emakumeak baino gehiagotan ageri dira lan produktiboan**. Zehazki, aztertutako 578 ipuinetatik gizona 374tan agertzen da etxetik kanpo lanean eta emakumea aldiz, 224tan. Proporzioetara eramanez, **gizonak, %65an eta emakumeak %39an**

Emakumeei gainera, lan-ekintza mugatuagoa eskaintzen zaie, hala kopuruari dagokionez nola lanbide-motei dagokienez eta orohar feminizatuak dauden sektoretan agertu ohi dira. Irakasle edo dendari paperean, adibidez.

Zaintza lanek eragin zuzena dute espazioan. Protagonista eta pertsonaia maskulinoak agertoki oso bestelakotan ikusten ditugun bitartean, pertsonaia hauek **emakumeak** direnean eta zaintza lanei lotuta ageri direnean, gehienetan **espazio pribatuan ikusten ditugu**. Datuei erreparatuz aztertutako liburuen %48,4an emakumeak eremu pribatuan ageri dira, eta espazio publikoan aldiz, %31ean.

MAITASUN ERROMANTIKOA

Maitasun erromantikoa, bere deskripzio tradizionalan ez dugu uste genuen bezain maiz topatu. Ikertu ditugun liburuen %8an soilik topatu dugu eredu hori. Aipatzekoa da baina maitasuna, eta sentimenduak orohar emakumeak protagonista diren liburuetan topatu ditugula.

Mutilak protagonista diren liburuetan zeharka aipatzen da gehienez ere, aldiz neskak protagonista direnea liburu osoan zehar maitasuna ardatz dela topatu izan dugu.

EMAKUMEEN AUSENTZIA

Ikerketan ez genuen aurreikusi aldagai moduan, baina, espero genuena baina maizago emakumerik agertzen ez diren liburuak topatu ditugu.

Kasu batzuetan gainera, ausentzia totala da, beste batzuetan irudi bakar batean agertzen da edo hitzez aipatzen da soilik. Komikien kasua, naiz eta ikerketaren hasieran ez aurreikusi emakumerik gabeko edo kasi gabeko istorioak kontatzen dituzte orohar.

OROKORRA

Azterketak emandako datuak kontutan izanda genero arrakala txikitzearen beharra dagoela esan daiteke.

Datuak orekatze alderako eta aukeraketan genero perspektiba txertatzen jarraitzea aurrerantzean egingo diren erosketetan edo aurrerantzean egingo diren garbiketetan (expurgoetan) ere.

Asko publikatzen den garai honetan liburuzainen lana mardula da. Oiartzungo liburutegian esperientzia handiko langileak daude eta liburuzain arduradunaren lanaldiaren zati handi bat liburuak aukeratzean datza.

Iturri ezberdinak ditu lan horretarako eta editoralen eskeintzaz gain nobedadeak, web orri kualifikatu eta beste liburutegien jardununean ere oinarritzen du bere lana.

Lan horren emaitzari esker eredu positiboak topatu ditugu bidean, baita azterketan aipatu ere. Liburuzainen intentzionalidade positiboa ikusten da; nahiz eta genero perspektiba modu “kontzientean” oinarritutako aukeraketa ez dela aipatu digun egindako elkarrizketan:

“Ni ez naiz kointziente buru belarri jarri naizela azken 25 urte hauetan, ez.” baina elkarrizketan liburu hautaketaren inguruan jarraituz:

“Gaur egun, argitaletxe batek nahi baldin badu kalitazteko literatura eskeini, konturatu gabe generoa barruan sartua dauka, ze ezin da egin gaur literaturan liburu on bat, ez da izango matxismoa edo arrazismoa bultzatuko duen libururik. Orduan ez da, ni feminista naiz eta... ez; zoaz nobela onak aukeratzera, haurrentzako anatomia liburu onak aukeratzera... eta kalitatezko zerbait bilatzera zoazenean generoa sartua dago.”

Beraz badago kalitateari eta genero perspektibari garrantzia emateko nahia liburuzainaren partetik; Euskal Erkidegoko 11/2007 Legea, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiei buruzko legean aipatzen denari jarraiki: *“Hori dela eta, funtsezkoa da liburutegi-erakundeari asmo handiagoko ikuspegi batekin heltzea, hezkuntza, kultura eta informazioaren benetako eragile izan dadin eta bakea, tolerantzia eta gizakumearen berezko balioak bultzatzea.”*

11/2007 Legean ere liburutegi bateko bildumaren garapena liburuzainaren irizpide profesionalean oinarrituko dela aipatzen da: Eragin komertzialak alde batera utzita, eta honetan oinarrituko da: Erabiltzaileen ordezkari-organoei, tokiko kolektiboari eta hezkuntza, kultura eta informazioa beste erakunde batzuei kontsulta eginaz.

Modu naturalean gertatzen da hau Oiartzungo liburutegian, herritarrak egiten duten lana eta liburutegiko langileen elkarlana azpimarratzen da liburuzainaren hitzetan:

*“Irakurleak eskatzen dutena ere kontutan hartzen dugu, liburutegiak beti egiten duena da proposatu, eta kontutan hartzen ditugu proposamenak. **Liburutegia ekosistema bat da, arduraduna ez da irla bat**, arduradun berdinak ez lituzke liburu berdinak aukeratu beste herri batean, eskatu gabe ere kontziente gara zeintzuk diren gehien ateratzen diren liburuak. Liburutegi batean emaitza ona baldin bada, elkarlana da, liburu arduraduna ekartzen duena, eskatzen dena eta erabiltzen denaren emaitza delako, erabiltzaileak hemen oso esker onekoak dira gainera.”*

Lan hau burutzen ari ginelarik Oiartzungo herritar ekimen batek haur eta gazte literaturan aniztasunaren beharra azpimarratu eta ekimen kolektiboa jarri dute martxan.

Ikerketan feminismoaren inguruko liburuen azterketan egindako elkarrizketan haur eta gazte literaturan aniztasuna azaltzeko beharra azpimarratzen zigun Oiartzungo Asanblada feministako kideak eta Kuku ekimenaren bultzatzailea denak:

“Horregatik ere bultzatu genuen Ku-ku ekimena, kalitazteko liburuak daude Oiartzungo liburutegian, intentzioa ikusten da aukeraketan, eta behintzat gaztetxoenen literaturan (nik gehien kontrolatzen dudana) ilustrazioak ere zaintzen dituzten liburuak badaude. Izugarrizko sorpresa eraman nuen, esaterako, ikusi nuenean Ilya Greenen “La dictadura de las coletas” zegoela Oiartzunen... EAE osoan 4 ale, eta horietako bat hemen! Gero, egia da gazteleraz halako herrietan oso oso gutxi mailegatzen dela adin hauetan, ezta? Oiartzunen aritu zen liburuzain batek kontatu zidan. Horrez gain, literatur generoetan ez dago aniztasun handiegirik, baina hori egiturazko kontu bat da, eta gero, ba euskaraz ere liburuen formatuei begira ez dago aniztasun handiegirik, baina hori ere euskal merkatuaren nolakotasunaren ezaugarri bat da.”

Elkarrizketa berdinean Oiartzungo liburutegiaren haur eta gazte literaturaren inguruan dauden espazioari buruzko aipamena agertu zaigu baita ere, liburu asko daudenaren aipamena eta espazioaren zabaltzearen beharra azpimarratuaz Oiartzungo asanblada feministako kideari egindako elkarrizketan:

“Haurrak literaturara gerturatzeko espazioa ez da egokia, isilik egon eta segituan alde egitera gonbidatzen du, ez dago lasai egoteko espaziorik, pixkat bat hitz egin edo hurrei ipuinak lasai kontatzera gonbidatzen dutenak.”

Honi buruz ere liburutegiko arduradunarekin egindako elkarrizketan mintzatu gara eta bere iritzia eman zuen:

“Helduek isiltasuna behar dute, eta liburutegi osoa komunitatua dago, eta haur bati ezin zaio isilik egotea eskatu, 10 urte bitarte beste askatasun bat behar dute hurrek. Hori itxita, espazio bat beraienzat propio izatea izango zen egokiena, hau da etxe honen akatsa, dena komunikatua dagoela. Isiltasuna behar du liburutegi batek, ikasteko irakurtzeko. Beharrak ezberdinak dira.

Beheko ikaslegak erabilera anitza dauka, beheko gela horrek daukan abantaila bada, guk liburutegia itxi egiten dugu eta gela irekia geratzen da, asteburuetan, eta gaueko 10ak arte. Udaltzainak ixten dute.

Ikasgela hori beste lekura eramango balute...Baloratzekoa da. Solairu hau ezin da itxi, zaila da. Pentsatu egin beharko dugu, dute... behekoak ere erabilera anitza du, ekimenak antolatzen direlako. Ez bada kultur etxera eramatea...”

Ez da nolanhiko herritar zein langileen artean egindako gogoeta, berez IFLA/UNESCOren liburutegi publikoentzakoentzako lan ildoan artean topatzen dugu ondorengo; Liburutegi publikoetako eraikinek oso zeregin garrantzitsua dute ematen dituzten zerbitzuetarako. Liburutegien zerbitzuaren funtzioak islatzeko moduan diseinatu behar dira, komunitateko pertsona guztientzat irisgarriak izan behar dira. Eta nahikoa malguak izan behar dira, zerbitzu berrietara eta dagoeneko dauden zerbitzuen aldaketetara egokitzeko.

Ikerketa honekin datuak ipini nahi izan ditugu, eta Oiartzungo liburutegiko langileen intentzionalidade eta genero perspektibarekiko jarduna ere, haur eta gazte literaturaren txokoan duten apal morean eskaintzeko jarduera, non aniztasuna eta berdintasuna lantzen dituzten liburuak dauden eta atal berdinean pixkanaka pegatina morea jartzearekin ere lerrokatua dago eta lagungarria izan daitekeela espero dugu.

Haur literaturan genero ikuspegia txertatzearen beharra eta garrantzia mahai gainean ipini nahi izan dugulan honekin, haurrei zuzendutako ipuinak eta generoa harilkatuz, berdintasunean oinarri duen jendartea estu lotuko dugunaren uste osoz.

4. FEMINISMOAREN INGURUKO LIBURUAK

Lanaren bigarren zati honetan, Oartzungo Manuel Lekuona liburutegian aurkitu daitezkeen feminismoaren inguruko liburuentzako sailkapen proposamena azalduko dugu.

METODOLOGIA

Liburutegiko apaletan 305 zenbakiarekin feminismoaren inguruko 119 liburu daude katalogatuak. Liburuak feminismoaren bueltako ikerketak, biografiak, emakumeen historian oinarritutakoak eta saiakerak dira. Euskaraz zein gazteleraz topatu ditzazkegu. Liburuen zerrenda adierazleekin jarri ditugu. Ez daude, kriterio amankomunak feminismoaren eta LGTBIQ+ ren inguruko liburuak sailkatzeko Erkidegoan, ezta ikerketa burutzeko galdetu dugun liburutegi ezta emakume etxeetan ere.

Bartzelonako Xarxetan egindako proposamenean oinarritua, eta hizkuntza eta Euskal Herria aldagai gisa gehituta, proposamenerako erabilitako aldagaiak honako hauek izan dira, :

- Hizkuntza
- Teoria feminista eta generoa
- Biografiak eta historiari buruzko liburuak
- Dokumentazioa edo ikerketak
- Gorputzak eta sexualitatea
- Familia eta Hezkidetza
- Indarkeria
- Gizartea, politika, lana eta erlijioa
- Euskal Herriko mugimendu feminista

FEMINISMOAREN INGURUKO LIBURUAK SAILKATZEKO IRIZPIDEAK

Emaginen dokumentazio zentrorako, Errenteriako Lekuona liburutegian edota Hernani zein Errenteriako emakume etxeetako liburutegietan erabilitako sailkapenak aztertu eta bertako arduradun ezberdinekin elkarrizketak izan ostean hauxe da luzatzen dugun proposamena Oiartzungo udal liburutegirako.

Batetik liburutegian erabiltzen den sailkapen orokorra mantentzea feministak jotzen ditugun liburuetan ere. Hala nola:

- Biografia
- Nobela
- Haur literatura
- Dokumentazioa
- Espezialitateak: Psikologia...
- Teoria feminista, kategoria gisa

Bestetik, liburu feministek, nahiz eta sailkapen orokorra mantendu bere baitan, bestelako sailkapen bati erantzungo diote: sailkapen feministari alegia.

- Kanpora begira ikur gehigarri batekin adierazita joango dira.

Liburutegiaren sailkapen orokorrari erantzuteak abantail hauek ditu:

Genero perspektiba edo emakumeen inguruko gaiak bilatzen ez dituenak topatuko ditu horren bila egon ez arren eta normaltasuna ematen zaio gaiari zein perspektiba feministari ere.

Zaila da baina etiketa hori jartzea, haur eta gazte literatura nobedadeetan jartzen dituzte jada baina ez dago irizpide argirik zeintzuei jarri eta zeintzuei ez erabakitzeko eta liburuzainak ezin dituzte, denbora kontuengatik, liburu guztiak irakurri. Aldiz apalategi eta zenbaki ezberdinu bat emateak ere ikusgarritasuna ematen dio gaiari eta gaiaren inguruan interesa duenak eskuragarri izango ditu liburuak.

Oiartzungo liburutegian hala dute, berain kabuz hartutako erabaki baten ondorioz:

“Emakumeena oso sakabanatua genuen, liburu gutxi genituen eta sakabanatua, pixkat bortxatuta ere, hor. Ze hasieran feminismoa folklorea zegoen. Giza zientzen barruan, filosofian, orain filosofiaren barruan dago, apal horren helburua da biltzea”.

Badakigu baina, liburutegiko arduradunaren nahia teoria femistaren, hortaz 305 zenbakia duten liburuen katalogoa txukuna eta aberatsa izatearen nahia. Horregatik liburu zerrenda proposamena helarazi dugu ondorengo datuak aberastu nahian.

DATUAK

119 liburu topatzen dira 305 etiketarekin Oiartzungo liburutegian, horietatik %26,5 a euskaraz eta %73,5 gazteleraz. 3 ale errepikatuak daude, “Guztiok izan beharko genuke feministak” eta “King kong teoria” euskaraz eta gazteleraz topa ditzakegu eta Simone de Beauvoir-en “Bigarren sexua” bi ale euskaraz eta bestea gazteleraz.

Euskal herriko mugimendu feministaren edo euskal herriko emakumeen historiaren inguruko 18 liburu daude; hau da %16,8. Emakumeen aurkako indarkeria lantzen duten 8 liburu daude sailkapenean, %7,3a. Hezkidetzaren inguruko liburuak 2 dira Oiartzungo liburutegian, bat 305 etiketaren eta bestea helduentzako sail orokorrean. Dokumentazio edo ikerlanak 16 dira, zerrenda osotik %14, 6. 10 liburu queer mugimendu, transexualitate eta transfemisnoen ingurukoak dira %8a beraz.

Zerrendatuak dauden liburuetan gehien topatu ditugunak saiakerak eta dibulgazio liburuak izan dira; gizarte lana, politika eta erlijioaren aldagaiari erantzuten.

ONDORIOAK

Oiartzungo Asanblada feministako kideari egin diogun elkarrizketan zein liburu egon beharko luketeen galdetuta katalogoan aurkitu ditugunak direla esan daiteke.

“Ikuspegi feminista garbi bat dutenak, teoria feministez ari direnak, emakumeen historia jasotzen dutenak, Euskal Herrian elkarte feministek eginikoak...”

Gaur egun liburutegian badago aniztasuna eta Euskal herriko ekoizpenari begira kopuru handia. Hala eta guztiz ere, hezkidetza eta familia anitzen inguruan liburu eskeintza zabaltzeko aukera badago, baita ikerlanak edo gorputz anitzen eta sexualitateren inguruko gaiari erantzuten diotenak ere.

Gaiarekiko baliabideak eskaintzea, formakuntzak jasotzea edo/eta herriko mugimendu femisnitarekin hartu emanak sakontzea, katalogoa aberasteko aukera zabaldu dezake.

PROPOSAMENAK

Gure proposamena, sailkapen mistoa egitearena da. Hau da 305 etiketarekin feminismoen inguruan jarduten diren liburuak bildutak jarraitzea eta biografia, eta historia liburuak bere hortara mugitzea, sailkapen feministaren etiketa jarritz.

Emakumeen historiari buruzko 18 liburu topatu ditugu, hauek sail orokorrera eraman eta etiketarekin jarriko genituzke, Biografien kasuan 5 ere mugituko genituzke. Honako hauek dira aipatutako liburuak:

HISTORIARI BURUZKO LIBURUAK

Herstory : una historia ilustrada de las mujeres

Las olvidadas : una historia de mujeres creadoras

Sorginak, emaginak eta erizainak : emakumezko sendalarien historia bat

El cáliz y la espada : de las diosas a los dioses las culturas pre-patriarcales

Gure genealogia feministak : Euskal Herriko mugimendu feministaren kronika bat

Emakumeak eta feminismoa mendebaldean

Ladronas victorianas : cleptomanía y género en el origen de los grandes almacenes

Emakumeen aztarnak Hondarribian = Las huellas de las mujeres en Hondarribia

Mujer y herencia en el estamento hidalgo guipuzcoano durante el antiguo regimen (siglos XVI-XVIII)

Maestras antiguas : mujeres, arte e ideología

Biziraupenerako zaintza : Hernaniko inudeak 1900-1944

Historia de lo trans : las raíces de la revolución de hoy

Emakumeak XX. mendeko historian

Emakumeak Euskal Herrian : (erresistentziak eta hausturak)

Educación, memoria e historia de las mujeres vascas

Emakumeen baitan : Oiartzungo historia zati bat

Errenteriako emakumeen aztarnak : narrazioak

Transformando la sociedad : historia del Forum feminista Maria de Maeztu

Voces en el desván : aportación realizada por las mujeres a la historia de Hernani (1936-1970)

BIOGRAFIAK

De pronto, mi cuerpo : una memoria

Pioneras del feminismo : una historia de las primeras mujeres luchadoras

Mi vida hasta ahora

Yo, Safiya

Deshonrada : los derechos de la mujer contra los abusos de una tradición cruel

Maskulinitasuna lantzen dituzten liburuak ez daude 305 kategorian sailkatuak, liburutegian badaude baina. Hauei ere etiketa berezitua jarriko genieke. Hauei esate baterako:

MASKULINITATEA

La vida en común: los hombres (que deberíamos ser) después del coronavirus”

Iron John : una visión de la masculinidad

La dominación masculina

Oiartzungo Asanbalda feministako kideari egindako elkarrizketan, ikurraren erabilpena aipatu zuen; haur literaturaren inguruan lan egiten duen Galtzagorri elkarteak gomendatzen dituen liburuak ezagutarazteko liburutegi batzuetan egiten duten moduan: *“Uste dut erabiltzaileentzat lagungarria litzatekeela hau. Nik liburutegi handietan, esaterako, galtzagorriren etiketatxoak pila bat eskertzen ditut! Hori ikusi eta badakit liburu horrek kalitatearen bermea duela... ba berdin feminismoarekin. Pixka bat zailagoa da akaso, ze horretarako horren bueltako fororen bat sortu beharko litzateke, ezta?”*

Ekimen positiboak ere proposatu zituen, liburutegian dauden liburuak ezagutzeko eta berdintasuna bultzatzeko, Oiartzungo Asanblada feministako kideak proposamen batzuk ere helarazi zituen ere zentzu honetan: *“Gaiarekiko badago interesa gaur egun. Egia da asmatu egin behar dela formatoan, ordutegian, lekuan... Baina bai: literatur klub feministak, tertulia dialogiko literario feministak, literatur leihaketak...”*

Aukera hori mahai gaineratua, emakumeen lanak bisibilizatzeko lanean jarduten dira liburuzainak, emakumeen lanak ezagutarazko:

“Rara avis kolekzioan emakume ezezagunen nobelak argitaratzen zituztela ikusi nuen, ez dakit nondik atera nuen hori... garai hartan emakumeentzako askoz zailagoa zen argitaratzea, tapa biguinekoak dira, ez dira garestiaren itxura, eta irakurleak eskertzen dute, “zenbat emakume ezagutzen ari garen” esanez, gertatu liteke liburu horiek mailegurik gabe geratzea esate baterako, baina betiere izango da fondo bat interesgarria, ze bestela irakurleek ez zuten ezagutu ezta ikusi ere egingo. Guk orain nobedadeen artean jarri ditugunean hartu edo ez artu emakumea ezagutu dute, “Zergatik ez nuen ezagutzen?, galdetzen diote beren buruari.”

Hortaz liburutegian egiten diren jarduera positiboek, mugimendu feministako kideak egindako proposamenak gehitu ahal litzaizkioke:

- Liburu klubak
- Gidak sortu
- Liburuen aurkezpenak
- Literatur lehiaketak
- Tertulia dialogiko feministak
- Egun berezietan gai honen inguruko ekimenak bultzatu edo liburu selekzioak egin, egun esanguratsuenak hauek liratezke:

Martxoak 8 Emakumeen eguna

Ekainak 28 LGTBI+ harrotasun eguna

Azaroak 25 Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako eguna

Maiatzak 17 LGTBI+ fobiaren aurkako eguna

Hauetaz gain beste egun asko erabil daitezke gai konkrituagoak lantzeko, hala nola:

Otsailak 11 Emakume eta neskek zientzan egun inetrnazionala

Apirilak 27 Lesbianen bisibilizazio eguna

Maiatzak 17 Familien egun internazionala

Maiatzak 28 Emakumeen osasunaren aldeko eguna

Ekainak 21 Hezkuntza ez sexistaren eguna

ERANSKINA

Arestian esan bezala gai ezberdinei erantzuteko eta Oiartzungo liburutegi arduaren eskaerari erantzunez honako liburuak gomendatzen ditugu:

IZENBURUA	EGILEA(K)	EDITORIALA
GAIK		
El pueblo gitano contra el sistema-mundo : reflexiones desde una militancia feminista y anticapitalista	Pastora Filigrana	Akal
GORPUTZAK ETA SEXUALITATEA		
10 gritos contra la gordofobia	Magdalena Piñeyro	Editorial Vergara
Manifiesto por la menopausia	Jennifer Gunter	TimunMas
TEORIAS FEMINISTAK ETA GENEROA		
Masculinidades y feminismo	Jokin Azpiazu	Virus
Mujeres, salud y poder	Carme Valls Llobet	Catedra
El buen sexo mañana	Katherine Angel	Alpha Decay
Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida.	Amaya Pérez Orozco	Traficantes de sueños
INDARKERIA		
¿Cerró usted las piernas? Contra la cultura de la violación	Rosa Marquez eta beste	Plan B
Microfísica sexista del poder : el caso Alcàsser y la reconstrucción del terror sexual	Nerea Barjola	Virus
HEZKIDETZA ETA FAMILIAK		
Otra educación ya es posible	Almudena García	Litera libros
Balones fuera: reconstruir los espacios desde la coeducación	Amparo Tomé eta beste	Octaedro
EUSKARAZ		
Araka ditzagun gure bazterrak : kritika dekolonialak zeharkaturiko ibilbide bat	Jule Goikoetxea	Susa
Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte	Iratxe Retolaza eta beste	Udako euskal Unibertsitatea

Mundua berriz liluratuz : feminismoa eta komunen politika	Silvia Federici	Katakarak
Pentsamendu heterozuzena	Monique Wittig	Susa
Borrokalari transgeneroak	Leslie Feinberg	Katakarak
Argi izpiak txarrantxen artean	Maria Ruiz Torrado eta beste	Udako euskal Unibertsitatea
EUSKAL HERRIA		
Democracia patriarcal :Euskal Herria, Estado Español, Europa	Jule Goikoetxea y otras	Txalaparta
Ni casadas ni sepultadas. Las viudas: una historia de resistencia femenina	Amaia Nausia	Txalaparta

ITURRIAK

<https://repository.ifla.org/bitstream/123456789/2006/1/IFLA-UNESCO%20Public%20Library%20Manifesto%202022.pdf>

<https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2007/11/0706288a.pdf>

Xarxa de Biblioteques Municipals. (2021). Orientacions i propostes per als fons dedones i LGTBIQ+ a les biblioteques de la xarxa de biblioteques municipals de la diputació de Barcelona. Xarxa de Biblioteques Municipals.

